



ARGIA

ARTZAINAK KEXU



ELB-K 40 URTE

Etxalde ttipiak defendatzeko sindikatua

26-32. orrialdeak

#2.792 | 2022 / 09 / 18 | 4,00 €



Total multinazionalaren estrategia, ezer ez aldatzeko

12 | KLIMA LARRIALDIA



Txileko konstituzioa aldatzeko borrokan segitzen dute

34 | NAZIOARTEA



“Ez gara gai izan kaleetatik esklabistak eta boteretsuak erauzteko”

38 | PEIO RIAÑO

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #277
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ERAUSO

KRITIKATU BEHAR DUGU

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANIEL VELEZ**

Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | MATI ITURRALDE
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | ITZIAR MORENO

Finkoak

- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 43 | ARGIA KOMUNITATEA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
JÚLIA MARTÍ COMAS
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


MARTIN BERNETTI, AFP

34 | TXILEKO KONSTITUZIOARI ZERGATIK ESAN DIOTE EZETZ?

Katharina Pavletich elkarrizketatu du Leire Artolak. Frente Amplio alderdiko kidea da eta Apruebo kanpainaren bultzatzailea. Biltzar Konstituziogileko kideetako bat ere izan da eta elkarrizketa honetan aztertu du zergatik esan dioten herritarren gehiengoek aldaketari, Txile estatu parekide, plurinazional, sozial eta ekologiko gisa izendatzen zuen konstituzioari, testu aurrerakoi eta feministari...

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Klima larrialdiaren erdian, negozio eredia aldatu baino, Total-ek nahiago du zalantza hauspotu

Nikolas Goñi

16 | PERTSONAIA | MIRIAN OTXOTORENA

“Familia ustiategia amaituta dago”

Reyes Ilintxeta

26 | ELB SINDIKATUAK 40 URTE

Etxalde ttipien alde, lau hamarkada borrokan eta aterabideen gauzapenean

Jenofa Berhokoirigoin

38 | HISTORIA | PEIO H. RIAÑO

“Monumentuak ez dira historia, boteretsuen bertsio interesatua dira, publizitatea besterik ez”

Axier Lopez

46 | KULTURA

Pelikula pusketez osatutako irudiak

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Maddi Viana, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Peru Iparragirre, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluz, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Burugabetza

"Erregina hil da, gora Erregeal!". Koroa ezin da bururik gabe bizi. Britainiar inperialismoak izan duen erreinaldi luzeenaren ostean –zazpi hamarkada–, erregina hil den egun berean bertan seme zaharrena berehala bihurtu dute Ingalaterra, Gales, Eskozia, Ipar Irlanda eta 14 kolonia ohiren estatu buru, baita Commonwealth-ekoa ere –56 herrialde independentez osatutako elkarte, ia 2.400 milioi pertsona biltzen dituen—. Egun horretan bertan, herritarrek boza bidez aukeratutako gobernuak eta ordezkariak leialtasuna zin egiten diote inork inoiz aukeratu ez duen pertsona horri, gaztelu batetik 41 kanoikada botatzearekin batera. Harribitxiak eta flashen distirak ezin du ezkutatu monarkia oro Erdi Aroko arrangura parasitarioa dela.

LEON NEAL / REUTERS AXIER LOPEZ





Pablo Gonzalez kazetaria askatzeko eskatu dute 26 sindikatuk

ERREDAKZIOA

Pablo Gonzalez en egoerarekiko kezka adierazi dute sindikatuek, tartean Euskal Herrikoek. Polonian atxilotuta daukaten kazetaria lehenbailehen eta kargurik gabe aska dezatela eskatu dute.

Gonzalez en egoera "gutziz antidemokratikoa eta bidegabea" dela salatu dute. ELA, LAB, STEILAS eta Euskal Herriko, Kataluniako, Galiziako eta Espainiako Estatuoko beste hainbat sindikatuk oharra kaleratu dute, Poloniako agintariei eskatuz kazetaria lehenbailehen eta kargurik gabe aska dezatela.

Sindikatu en aburuz, "onartezina" da "estatu batek hain modu arbitrarioan eta inolako frogarik gabe" kazetari bat atxilotzea. Prentsa askatasunaren eta demokraziaren aurkako erasotzat jo dute, eta Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari eskatu diote beren esku dagoen guztia egin dezatela "bidegabekeria" amaitzeko.

Sinatzaileek gogorazi dutenez, Gonzalez praktikan inkomunikaturik dago, duela sei hilabete atxilotu zutenetik familiaren bost gutun baino ez ditu jaso, guztiak atzerapen handiarekin, eta abokatuarekin eta Espai-

niako Estatuoko kontsularekin baino ezin izan da harremanetan jarri.

Sinatzaileak: Alternativa Sindical de Clase, ASC; Central Unitaria de Trabajadoras CUT Galiza; Colectivo Unitario de Trabajadores CUT Aragón; Comisiones Obreras, CCOO; Confederación Intersindical; Confederación Intersindical Galega, CIG; Confederación Nacional del Trabajo CNT; Confederación Sindical Solidaridad Obrera; Coordinadora Obrera Sindical COS Países Catalans; Corrientes Sindical de Izquierda, CSI Asturias; ELA Sindikatua Euskal Herria; ESK Sindikatua Euskal Herria; Intersindical Alternativa de Catalunya, IAC; Intersindical Canaria; Intersindical Catalana; Intersindical Valenciana; LAB Sindikatua Euskal Herria; Organización Sindical de Trabajadores de Aragón OSTA; Plataforma Sindicat EMT; Unión General de Trabajadores UGT; Sindicato 25 De Marzo de Extremadura; Sindicato Andaluz de Trabajadores SAT Andalucía; Sindicato Asambleario de la Sanidad SAS; Sindicato CO.BAS; STEI Balears; STEILAS Euskal Herria. ●



Ohi baino hildako gehiago utzi ditu 2022ko beroaldiak

ERREDAKZIOA

Frantziako eta Espainiako estatistika institutu nagusiek ezagutarazi dituzten kalkuluetan, 2022ko uda bereziki beroak eragin du bi estatuetan ohi baino milaka pertsona gehiago hiltzea, zehazki 11.000 Frantziako eta 5.000 Espainiako.

Frantziako datuak INSEE Estatistika Institutuak irailaren 2an plazaratu ditu eta *Le Monde* egunkariak zabaldu, "*La canicule 'vraisemblablement' à l'origine de plus de 11 000 décès supplémentaires en France cet été*" (Uda honetako beroaldiak zurrerik 11.000 heriotza eragin ditu) izenburuko albistean. Ondorio horietara iritsi dira soziologoak alderatu ostean alde batetik 2022ko ekainaren 1etik abuztuaren 22ra Hexagonoan hil diren jendeen kopurua eta bestetik 2019an epe berean hildakoak. Egunkariak dioenez, INSEEn txostenak ez ditu zehazten heriotza gehigarri horien kausa zehatzak, baina zuhurtasunez dio kopuru horiek esplikatzen direla ekainaren erditsuan hasi eta errepikatu diren beroaldiekin.

Hipotesi horren oinarritzat, estatistika institutuak dio uda honetan Frantziako heriotzetan ezagutu dituen hiru gailurrak kronologikoki lotuta ageri direla jasandako hiru beroaldiekin.

Espainiari dagokionez, RTVE Espainiako irrati telebista publikoak irail hasieran plazaratu du albistea ("*Las muertes atribuidas al calor en España triplican la media de los últimos cinco años*"): estatuan azken urteotako heriotzen batez bestekoa hirukoiztu egin dela beroagatik. RTVE oinarritu da epidemiologia eta analisi estatistikoetan erreferentzia den Carlos III Institutuaren kalkuluetan. Horien arabera, 4.700 pertsonatik gora –horietatik 3.800 uztail eta abuztuaren hila dituzten Espainiako Estatuak. Hemen ere, lotura zuzena aurkitu dute heriotzak bereziki ugaritu ziren egunen eta udak eduki dituen beroaldien artean.

Hego Euskal Herriko datuak ere zehaztu dituzte: udan beroagatik Nafarroan hil dira 100.000 biztanletik 17,8, Bizkaian 8,8, Araban 7,8 eta Gipuzkoan 1,8. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

Bat ala bestea



UXUE APAOLAZA LARREA

Kolpatzen gaituzten hainbeste drama izanda, gutxitan ekarzen ditugu plazara inoiz abandonatzen ez gaituzten buruko minak. Esaterako, egunero jantzi beharra: publikoan kontrakoa argudiatuko dut, koloreak, aniztasuna eta hori guztia, baina nire bakardade beldurtian lasaitua hartuko nuke goizero janzteko uniforme bat inposatuko balidate; janzkera gure nortasuna adierazteko bidea omen da, eta niri nire nortasuna hain agerian eramateak erreparoa ematen dit. Baita, adibidez, depilatu beharra ere. Asteburu honetan ez nuen kamiseta tiraduna jantzi, ezta galtza motzak ere; okerrago, ez nuen umea hondartzara eraman depilatu gabe nengoelako.

Muturtuta amaitzen dut depilatzen naizen bakoitzean, sentitzen dudana poz gorena "lan bat gutxiago" da; ez dut higieagatik egiten (hortzak garbitzea ere ez dakit horregatik egiten dudana); ez dut nire buruarekin hobeto sentitzeko egiten; inbidia diet ile gutxi eta argia dutenei, ez nirea bezala, bazter guztietan irteten den beltz osasuntsu hau. Lotsa ematen du esateak, baina maskararik gabe ibiltzeko aukera zabaldu zitzaigunean, nire nonbait alerta bat sumatu nuen, bibote eta bizarrak ohi baino oparoago nerabiltzalako.

Emakume bat pasa eta "zenbat denbora pasa du prestatzen?" pentsa dezagun, oso prestatuta joan behar du. Inork ez luke hori pentsatuko ni ikusita, baina emakume agertzeak elkarrizketagai izan gabe, denbora eskatzen du. Kontua ez da bestela gizon itxura edukiko nukeela, ez bata ez bestea nintzateke, eta ez dago hori baino gehiago aztoratzen duenik: zer da, neska maskulino bat edo mutil femenino bat? Neska iletsu eta bizarduna, ala bikinia daraman mutil bat? Depilazio gabeko urtea dekretatuko balitz, emakume kategoria askoz heterogeneoagoa litzateke, lausoagoa. Eta bat edo beste izan behar da, bat edo beste izan, desberdin tratatu behar baikaituzte. Ez?

Eta baten batek betikoa esango dit (txikikeria bat irudituko zaiolako, gure lan guztiak bezala): "Horrela pentsatzen baduzu, erraza da, ez depilatu; hainbeste inporta zaizu besteek pentsatzen dutena?". Bai, noski. Zuri beste. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Guardia Zibila

1990eko ekainaren 25ean, Irunberriko arroilan Jon Lizarralde eta Susana Arregi ETAko militantek hil ziren Guardia Zibilaren operazio batean. Bertsio ofizialak dio suizidatu zirela; hainbatek defendatzen du atxilotu, torturatu eta exekutatu egin zituztela. Egun horretan han zirenen lekukotzak jaso nahi ditu orain Gure Bazterrak taldeak.

Erraustegiak

Ehunka pertsonak parte hartu du Donostiako Kontxako hondartzan egin duten giza katean, Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Mugimenduak eta hainbat talde ekologistak deituta. Helburua: Zubietako erraustegiaren "irregulartasunak" eta Eusko Jaurlaritzak Bergaran lantegi berri bat eraikitzeke dituen asmoak salatzea.

Independentzia

Espainiako Barne Ministerioak onartu du poliziak infiltratu dituztela Kataluniako mugimendu independentistan. Ministerioarentzat "zilegia eta aproposa" da "legez kanpoko proiektu sezesionistetan" polizia agenteak infiltratzea. Ömnium Cultural erakundeak eskubide urraketa salatu du.

Txarrak berri lan merkatuan



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Argitaratu dituzte udaran zehar enpleguaren bilakaera aztertzeke baliotzen datuetako batzuk. Betiko datuak, Kapitalak ezarritako sailkapenak jarraituz egiten diren argazkiak erakusten dizkigutenak. Eta ohiko argazkia erakutsi digute. Zaharrak berri hortaz. Hala bada ere, eta zorrotzagoak izango bagara, txarrak berri esango dugu.

Langabeziak gora egin du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; ohikoa, uda sasoi-ko kontratuak bukatzen direlako. Baina industrian igo da gehien, eta hori ez da batere seinale ona. Eusko Jaurlaritzak berehala ukatu du joera baten aurrean gaudenik, baina gutxi ukatzen du energiaren prezioak industria kaltetuko duela. Nafarroan langabeziak behera egin du, baina gizarte segurantzak afiliatuak galdu ditu, beraz kontratuak duten langileen kopurua jaitsi egin da. Kontratazioari dagokionez, lautik hiru dira aldi baterakoak. Badago datu honetan hobekuntzarik ikusten duenik, baina ezin ahaztu Espainiako lan erreformak ekarritako muga jakinik gabeko kontratuak ez duela ez egonkortasuna ezta kalitatea ere bermatzen.

Non dago berria? Hauek direla lan erreforma onartu osteko lehen datuak. Eta erakusten duten lan merkatu horretan egingo diogu aurre langileok gainera datorrigunari. Ez dago beste lan erreforma baterako tarterik, aukera zegoen eta ez zuten egin. Kaleratzeak ez ziren garestitu, ez zen trabarik jarri. Errazak eta merkeak dira, bai indibidualak, baita kolektiboak ere. Ez zen langileen negoziazio ahalmena indartu. Ez zen urratsik egin lan legeria langileek behar dugun babes harresia izateko. Oraingoan ere, harresirik badago, langileok eraikiko dugulako izango da. Galtza bete lan kurtsu berrian, beraz. ●



Ziztadak eta beste

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Hasierako shock-etik, gertatzen ari zena ulertzeko zailtasunetatik, pasagara analisi eta tesietara. Dagoeneko badakigu ziztadek sumisio kimikoa eragitea gertagaitza dela, eta beste bat dela horien efektua: espazio publikoa ez dagokigula dioen mezu patriarkala emakumeoi haragitan xakitzea. Gainera, azken asteetan ahots ezberdinek salatu dutenez, fenomenoaz egiten ari den tratuak ziztadek inokulatutako mezu indartzen du, izua hedatzen baitu eta horrek emakumeon eskubideen murrizketa baitakar: ziztatuak izatearen beldurrez utz diezaiokegu aurrez geneukan segurtasunez gauez eta kaletik ibiltzeari, harremantzeari, nahi dugun bezala janzteari... finean, espazio publikoa dagokigun eremu bezala hartu eta defendatzeari.

Borroka feministari esker irabazitako terrenoaz desjabetu eta kate motzean lotu nahi gaituzten pultsioak oso latente, aurten bereziki premiazko aurkeztu zen Bilboko Aste Nagusian autodefentsa feministaren aldarri ozen eta irmoa egitea. Hala, jaien irekierarekin batera, hainbat emakumek txosnagunea zeharkatu zuten gauez *Temblad cabrones! Beldurrak gurekin jai* lelopean. Eta, nire irudiko, horrek harrotu zuen erbia. Manifestazioak iraun bitartean denetario erasoak pairatu zituzten manifestariak, eta oldarraldiak segida izan zuen sarean. Ecuador Etxeak egindako manifestazioaren laburpen-bideoak 200dik gora mezu jaso zituen, -misoginia urratzen duen- matxismoaren eta eskuin muturraren kiratsa hedatuz. Zer dira erasook emakumeok eskubidez gabetu nahi gaituen pultsioaren adierazpena ez badira? Hortxe, gordelektuk kanpo eta begi bistan, erbia.

Baliteke baten batek sareko erasoei garrantzia kentzea. Maiz gertatzen zait, nik bezala urte batzuk izan arte Internet ezagutu ez zuten pertsonekin hitz egiterakoan, ondokoarekin bat ez etortzea online gertatzen denak duen transzendentziaren gainean. Baina nola utzi albo batera sarean gertatzen dena gehiengoaren eguneroko interakzioen zati bat bertan ematen dela kontutan izanik? Internet ere espazio publikoa da -luzapena, nahi bada-, zeharkatzen duten logika eta talka guztiekin, eta emakumeon aurkako oldarraldiarekin garbi antzeman daiteke hori: kalean antzeman daitekeena, anonimotasunak ematen duen "ausardiaren" ondorioz, begi bistako bilakatzen da webean. *Alt-right*, *Incel*... etiketa horien pean sarean bilduta dabilta eskuin muturraren amua irentsi duten hainbat -zis gizon zuriak gehienak-, kontserbadurismoaren defentsan abiatutako gurutzadan, eta feminismoa dute jopuntuetako bat. Ez dakit neurtzen zenbaterainokoa, baina esango nuke badela lotura komunitate horien eta kalean gertatzen ari den emakumeen aurkako oldarraldiaren artean.

Inolako frogarik gabe, ziztadak eta komunitate neofaxista horien arteko balizko loturak seinalatzea lartxo litzateke. Baieztatu daitekeenik bada ordea; batzuek eta besteek bat egiten dutela mezu batekin: espazio publikoa ez dagokigun emakumeoi, eta dagokigun tokira itzultzen ez garen artean, gure kontra indarkeria erabiltzeko prest daude. Ez ditu horrek pareko egiten? ●

12.000

euroko isun banarekin zigortu nahi ditu Iruñeko Udalak 10 pertsona, Sanferminetako prozesioko istiluengatik. "Tentsio eta biolentzia giroa sortu" eta "Sanferminetako prozesioan herritarren segurtasuna urratzea" leporatzen die.

137

espezie hiltzen dira Amazonian egunero. Berreskuratzeko gaitasuna galtzen ari da planetaren birika berdea, deforestazioak eta degradazioak larriki kaltetuta.

286

urte inguru beharko dira emakumeen eskubideak urratzen dituzten lege diskriminatzaileak ezabatzeko eta babes arauak indarrean jartzeko, "emakumearen ahduntzeaz" arduratzen den NBEko taldearen azterketa baten arabera.

"Jaizkibel gero eta handiagoa den konpainia bat da, inoiz ez genuen plaza horrela bete"

OIHANA ETXEBARRIETA

Hondarribiko alardean, parekidea den konpainia bakarreko kapitaina.

2022-09-08

"LEGEGINTZALDIKO 3. URTEA DA ETA EZ DA LORTU NAFARROA GUZTIAN EUSKARA ALEMANA ADINA BEHINTZAT BALORATZEA LANPOSTU PUBLIKOETAN"

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEA

2022-09-05

"Langabeziak, inflazioak eta gastu sozialetara bideratu beharko liratekeen funts publikoak armetara bideratzeak milioika europarren bizitzak suntsituko ditu"

LUCIO MARTINEZ PEREDA

Historialari eta irakaslearen hitzetan, "Ukrainako gerra ez du NATOk egin askatasuna defendatzeko, AEB eta arma-enpresa handien etekinerako baizik".

2022-09-05



TEKNOLOGIA

Ikuspuntuak aldatzen direnean



DIANA FRANCO

Lantegi batean hartuko dut parte eta irakasleak mesede bat eskatu dit. Mese-dea azaldu aurretik, esan behar dizuet irakasle honi eskatu niola gizarte hezitzaile talde bati azaltzeko zer den software libre. Erronka interesgarria da, zeren talde honek giza arazoan gainean sentikortasun eta konpromiso handia badu ere, teknologian eragitea ez du oraindik barneratu gizartearen eragiteko beharrezko egitekoen artean.

Benetan liluratu nau irakasleak eskatu didana: software librearen aldeko mugimendua sortu zuen Richard Stallmanen bizipenak antzerki txiki baten bidez landu nahi ditu. Kontatu beharrean, Stallmanek egoera hori zelan bizi izan zuen eta bizipen horiek ikuspuntua zelan aldatu zioten irudikatu nahi du, hobeto ulertzeko.

Istorio honetan, gizakion istorio askotan bezala, gauzen izaeraren zergatia zalantzan jartzeko bizipenak funtsezko dira. Esango nuke, aldaketak prozesu intelektuala baino gehiago bizipenak bultzatutako gertaerak direla. Gero, denari zentzua emateko modua bilatuko dugu gizakiok, puntuak lotu eta istorioa osatzeko.

Eta gogoz geratu ez zaitezten, Stallmanen bizipena kontatuko dizuet, software libre zabaltzeko mugimendua sortzera eroan zuen bizipena. Lan egiten zuen ikerketa zentroan, enpresa batek laser inprimagailu bat oparitu zien, teknologia berria zen eta arazoak ematen zizkien. Stallman ohituta zegoenez makinak programatzera, sistemak sortzen eta hobetzen bazekienez, inprimagailua hobetu nahi izan zuen, baina ez zuen makinaren kodea. Beste inbertsitate bateko ikertzaile batek kodea bazuela jakin eta harengana jo zuen. Hark, ordea, ezetz esan zion, kodea ez zabaltzeko akordioa zuelako makina sortu zuen enpresarekin. Stallman jabetu zen munduan zenbaterik ezin zuen gizarte hobe baterako teknologia hobetu, horrelako akordioengatik. Eta teknologian eragiteko zuen ikuspuntua aldatu zen. Teknologian eragiteko modu ezberdin bat ulertzen hasi zen, teknologia bera ulertzeko moduarekin lotua. Interesgarria benetan irakasle honek, Margarita Padillak, proposatu digun saioa. ●

NAZIOARTEA



Ez da euria bakarrik

AXIER LOPEZ

Hainbat astez montzoi jasa handiak egin eta Pakistango ibai nagusi Indok gainezka egin ondoren, osasun eta elikadura larrialdia eragin dute. Aurreikuspenak ere ez dira oso itxaropentsuak, egoera larria epe luzean gelditzeko aukera baitago. Zenbait adituk diote glaziarren urtze azkarak, tenperaturen gorakadak eragindakoak, lagundu duela uholde erraldoi horietan.

33 milioi pertsona kaltetu ditu hondamendiak –Pakistango biztanleriaren %15– eta estatua osatzen duten 116 barrutietatik 66tan izan du eraginik. 900.000 abelburu inguru eta 800.000 hektarea lur ereingarri baino gehiago galdu dira. Milaka kilometro errepide eta dozenaka zubi suntsitu ditu. Momentuz, uholdeek 1.200 hildako eta 6.000 zauritu baino gehiago utzi dituzte, baina kopurua handiagoa izan daiteke, laguntza-taldeak Pakistango eremu batzuetan oraindik ezin izan baitira sartu. Gobernuak hondamendi egoera ezarri du kaltetutako zonaldeetan. Eta ironikoa badirudi ere, ur falta –edangarria– da bi probintzia kaltetuenetako biztanleek –Balutxistan eta Sindh– aurrean duten arazorik garrantzitsuena.

Pakistango Planifikazio eta Garapen ministro Ahsan Iqbalek esan duenez, “mundu garatuaren garapen arduragabeak” eragindako klima-aldaketaren biktima direla. Pakistanen munduko biztanleriaren %2,6 bizi da, eta munduko karbono-isurketen %1 baino gutxiago sortzen dute. Konparaziorako, Amerikako Estatu Batuek munduko biztanleriaren %4 baino ez dute eta karbono-isurketen %13 inguru eragiten dute.

Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusi Antonio Guterresek “energia berriztagarrietan” inbertitzeko eta “naturaren aurkako gerra” amaitzeko dei egin du Pakistandik. “Munduan hondamendi humanitario asko ikusi dut, baina inoiz ez dut neurri honetako sarraski klimatikorik ikusi. Nire herrialdearen azalera osoa, Portugal, halako hiru ur azpian da”. Guterresek salatu duenez, “garapen bidean” dauden hainbat herrialdek, Pakistan kasu, “prezio ikaragarria” ordaintzen dute berotegi-efektuko gasen isurtzaile handien jarreragatik, horiek erregai fosilen aldeko apustua egiten jarraitzen baitute.

Agintariek mugak hesitu eta txarrrantzez josi bitartean, sistema kapitalistak eragindako kalteen ondorioek mundura zabaltzen jarraitzen dute, gero eta azkarrago. ●

ATZERA BEGIRA

Inperioaren krimenak

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA

ELIZABETH II.a hil da, inperioaren krimenengatik barkamenik eskatu gabe. Senarrarekin Kenyan oporretan zela jakin zuen bere aita ustekabeen hil zela. 1952ko otsaila zen. Elizabeth Windsor, Jorge VI.a erregearen alaba zaharrena, azkar itzuli zen Londresera eta Elizabeth II.a erregina bilakatu zen. Atzean utzi zuen Afrikako herrialdean, hilabete gutxira, britainiarren aginte kolonialaren aurkako matxinada abiatu zen –Mau Mau gisa bataiatua– eta altxamenduari exekuzio, tortura eta hilketa kanpaina arrazista batekin erantzun zioten.

Iñigo Sáenz de Ugartek *El Diarioko Elizabeth II.a eta kolonialismoaren orban ezabaezina* artikuluan jaso duenez, Elizabeth II.a erregina izaten ikasten ari zen lehen urteetan, “atxilotuak animaliak bailiran” tratatu zituzten. Hegoafrikan Boer Gudekin mende hasieran egin bezala, kontzentrazio esparruak antolatu zituzten herrialde osoan eta kikuyu herria –Kenyako gehiengo– altxamenduaren babesle kontsideratu zuten. Bi urte bete zirenerako, 70.000 ziren atxilotuak, eta agintariak erabaki zutenean herri eta auzuneak espetxeak bailiran inguratzea, kopuruak biderkatu egin ziren. Orotara milioi bat kenyar baino gehiago izan zituzten horrela preso, eta milaka utzi zituzten hiltzen gosez eta gaixotasunez, kalkulu batzuen arabera 420.000 pertsona.

“Gazte hau 1957an urkatu zuten Txipreren askatasunaren alde borroka egiteagatik, britainiarrek okupatuta zutenean. Evagoras Pallikaridis zuen izena. Erreginak barkamena ukatu zion. Erreginak 31 urte zituen. Evagorasek 19”, oroitarazi du Alberto Lavínek sare sozialetan erreginaren heriotzaren harira. Munduko hedabide eta agintari gehienek emakumearen izen ona laudatzea erabaki berrian, sare sozialak bilakatu dira berriz ere bestelako mezu



eta datuen oroitarazle nagusi. Adibide bat besterik ez da Pallikaridisena. Palestina, Yemen, Irlanda Iparraldea, Afrika eta Asiako dozenaka koloniak... Zazpi hamarkadatan milioika pertsona hil ditu zuzenean edo zeharka britainiarren inperialismoak, Josep Fontanaren lan ugaritan jasota geratu denez.

Bera erregina zela deskolonizazio garaia bizitu zituen, baita Asia eta Afrikako inperio britainiarren amaiera ere. Ingalaterrako agintariak tragedia gisa bizi izan zituzten gertaera horiek, nahiz eta gero, Commonwealth izeneko erakundearen bidez, horietako asko lotzen asmatu zuten –egunotan Jamaikak eta Australiak adierazi dute errepublika izateko beren borondatea–.

Saenz de Ugartek jaso duenez, “gertatu zenari buruzko amnesia politikoa ez zen inprobisatu”. Kolonia batek independentzia lortzen zuen bakoitzean, Britainiako enbaxadak milaka dokumentu erretzeko agindua jasotzen zuen, britainiarren izen ona ez zutela zikinduko bermatu asmoz. Kenyako kasuan, 1.500 dokumenturekin eginiko hautaketa bat Londres bidali zuten, eta Foreign Office-

ek gorde zituen sekretupean. Kazetari eta historialariei dokumentu hauen existentzia bera ere ukatu zieten, gobernuak jakinarazi zuen arte 2010ean zer zeukaten gordeta. Ondoren eginiko ikerketek agerian utzi zuten errepresio modurik okerrenak erabili zituztela, tartean torturaren erabilera orokortua.

Gobernu britainiarren ildoak beti izan da herri horiek pairatutako zapalkuntza eta biolentzia ukatzea, inperioak utzi aurrerapen eta administrazio ona gorestea. Iragana gogorra da ordea, ezabaezina, eta gaur egun errege izendatu berri duten Carlosek Barbados-en esan bezala, “esklabotza errealtate mingarria da eta historia britainiarra betirako zikinduko du”.

Australiako aborigenak ere oroitu dira erregina hil berriaz. “Ez zen kolonialismoaren eraginen ikusle soil bat, arkitektoa zen. Amona jator bat zela dioten guztiek ahaztu egiten dute zenbait hamarkadaz herri indigenen bizitzak hondatu zituzten ekintzen gainbegiraletza zela bere lana. Bera izan zen aginte koloniala mantendu zuen pertsona, zapaltzen gaituen oinetakoa”. ●

KLIMA LARRIALDIAREN ERDIAN, **NEGOZIO EREDUA ALDATU BAINO,** TOTAL-EK NAHIAGO IZATEN DU **ZALANTZA HAUSPOTU ETA ZABALDU**

Eztabaidagai izan dira azkenaldian erregai fosilen sektoreko enpresa handiak, klimaren, geopolitikaren eta energia baliabideen bidegurutzan. Multinazional horiek beren onargarritasuna eta irudia hamarkadetan nola zaindu duten ikertuz, adituak ohartu dira klima aldaketari buruzko zalantzak sortu eta desmobilizazioa sustatu dutela konpainia horiek, komunikazio estrategia ezberdinak erabiliz, beti xede berarekin: beren negozio eredia ez aldatzea. Noraino jarraitzen ahalko duten jakitea zaila bada ere, tentsioak areagotuko diren testuinguru batean igaroko da.

 NIKOLAS GOÑI

Klima aldaketaren eraginak nabarmen zabaltzen eta gogortzen ari zaizkigun azkenaldi honetan eta energiaren inguruko tentsioak aldi berean areagotzen direlarik, eztabaidak pizten dira erantzukizunen inguruan. Berotegi efektuko gasen isurketak, eta orokorrago energiaren erabilpena murrizteko ahaleginak, nola banatu? Bakoitzari eskatzen ari zaion ahalegina bere benetako arduraren neurrizkoa ote da? Zenbateraino justifikagarriak dira gaur egungo gasolio, elektrizitate edota gasaren prezioak? Prezio igoera horietan zenbatekoa den benetan baliabide eskasiak bultzaturiko zatia eta zenbatekoa espekulazioak sortua. Zalantza horien artetik, gogo bat baino gehiagori etortzen zaio galdera

bat: nahaspilaturiko krisi horietan –klima, energia, elikadura, geopolitika–, ea ez diguten nonbait iruzur egiten enpresa handi batzuek, nahasmena baliaturik beren interesak lehenetsiz.

Azken hilabetetako testuinguruak galdera horiek akuilatzen baditu ere, arazoa ez da berria. Energiaren eta berotegi efektuko gasen isurketan ardura handiak dituzten –hots, erregai fosiletan maila handiko inbertsioak dituzten– enpresa askok aspaldidanik garatu zituzten komunikazio estrategiak, beren eraginei buruzko zalantzak sortzeko eta beren arduren hautematea lausotzeko. Horien adibide esanguratsu bat Total (2021ean TotalEnergies berrizendatua), Parisen egoitza duen multinazionala.

ARDURAK ESTALTZEKO ESTRATEGIA

Christophe Bonneuil historialaria buru izan duen *Early warnings and emerging accountability: Total's responses to global warming, 1971–2021* ("Alerta goiztiarrak eta azaleratzen ari den erantzukizuna: berotze globalerako Total-en erantzunak, 1971-2021") ikerketaren arabera, Total enpresak eta bere aurrekoek 1971n informazioa eskuratu zuten klima aldaketaren jatorriari eta bere ahalezko ondorio txarrenei buruz. 1980ko hamarkadan, informazio osatuagoa jaso zuten. Urte guti geroago –1992ko Rio de Janeiroko Goi Bilera prestatzen zeneko urteetan, hots, energia berriztagarriak eta klima gero eta gehiago aipatzen zirelarik– Total akti-

HERRITARRAK MOBILIZATURIK

Total konpainiaren kontrako ekintza, Pauen.



ANV/COP21

boki komunikatzen hasi zen klima aldaketa ukatzeko. 1990eko hamarkadaren bukaeran estrategia aldatu zuten: klima aldaketaren errealitatea ukatu baino, erabaki zuten klimari buruzko kontsentsu zientifikoa onartzea adierazpen publikoetan, bitartean klima aldaketari aurre egiteko neurriak atzeratzea sustatzen zutelarik, baita beraien hitza jan ahal izateko estrategiak garatuz ere. Bonneuil eta lankideek honako hauek aipatzen dituzte: gaitzusteak ezjakintasuna, arduraren saihestea, filantropia estrategikoa, eraginik gabeko konponbideen sustatzea, eta liskar publikoak kudeatzeko komunikazioa.

Total enpresa ez da halako ahaleginak garatu dituen bakarra. ExxonMobil edota Royal Dutch Shell konpainiek ere

Erregai fosilen enpresek aspaldi garatu zituzten komunikazio estrategiak, beren eraginei buruzko zalantzak sortzeko eta arduren hautematea lausotzeko

antzeko esfortzuak egin dituzte, izan jasangarritasunaren aldeko adierazpen publikoak zabalteak klimaren aldeko ekintza zehatzak oztokatzen zituzten bitartean; edo diskurtsoak egokitzea komunikazio ezberdinen irakurlegoen arabera, alde batetik sinesgarritasun akademikoa mantentzeko asmoz eta bertzaldetik, publiko zabalago batean zalantzak areagotzeko helburuz gaitzusteak editorialak argitaratuz.

Jean-Baptiste Fressoz, zientzien eta tekniken historialariak, trantsizio energetikoa eta klimaren hautematearen gaiak lantzen ditu eta aurre argitaraturiko elkarrizketa batean, anekdota esanguratsutzat aipatzen du: nola Exxon konpainiako I+G departamenduko zuzendari Edward E. Davidek iruzur

egin zion NASAko James Hansen klimatologoari, 1982an klimari buruzko konferentzia batean. Hanseni erran zion noski berotegi efektua aspaldidanik ezaguna zela, arriskutsua zela eta hori zientifikoki ez zela jada eztabaidagai, aldiz benetako eztabaida zela zein gartuko zen azkarrago: klima hondamendia ala trantsizio energetikoa. Eta noski, energiaren sektorea trantsizioaren erronkaz jabetu behar zela ohartarazten zion. Hansen ez zen orduan iruzurraraz ohartu eta eskertu ere egin zuen, koherentziaz jokatzegatik. Handik hilabete gutira, Davidek energia sektoreko enpresen gailur batean argi adierazi zuen erregai fosilek eta bereziki ikatzak toki handi bat izaten jarraituko zutela XXI. mendean. Davidek 1979an proiektu handi bat bultzatu zuen, Exxon konpainiaren garraio-ontzi bat erabiliz itsaso eta atmosferaren CO2 laginak biltzeko, klima modelizazioa hobetzeko asmoz. Erretiratu orduko, klima aldaketaren garrantzia gutxiesten zuten zutabeak izenpetzen zituen, ekonomia “deskarbonizatze” premia ukatuz.

Fressozen azpimarratzen du “ingurunea babestu beharraren ohartze berria”

1970eko hamarkadan erregai fosilen industria jabetu zen berotegi efektuaren arazoaz, eta bere negozio eredua ez aldatzeko komunikazioa garatzen hasi zen

bezalako esamoldeak trikimailutat erabiltzen direla, ordura arte arazoaz oharitzen ez bagina bezala, klimaren arazoa bete beharreko hutsune batean oinarritzen balitz bezala –eta ez eraberritu beharreko ordena ekonomiko batean–. Funtsean, urte bakoitzak bere honda-

mendi meteorologikoak badakartza ere, “kontzientzia” hori aspaldi garatzen hasi zen. Fressozen ustez, kontzientzia hori luzeegi aldarrikatu izan da, oraino ezertarako balio izateko eta okerreanean, ab-soluzio bat izan daiteke, kutsatzaileen zerbitzura.

ZALANTZA SALTZAILEAK

Bonneuilen taldeak *agnogenesis* deitzen du ezjakintasunaren antolatzea, gizartearen sektore batzuen eskutik –*ignorance as resulting from the organized work of social actors* edo “eragileek bideraturiko lan antolatuak eragindako ezjakintasuna”). Duela hamarkada bat, Naomi Oreskes eta Erik Conway zientziaren historialariek gai honi buruz argitaratu zuten *Merchants of Doubt* (“Zalantza Saltzaileak”) izendaturiko beren ikerketa. Bertan deskribatzen zuten nola osasun edo ingurune arazo global ezberdinen aurrean (tabakoa, euri azidoak, ozono geruzaren zuloa, eta abar) beren negozio eredua aldatu nahi ez duten sektoreen estrategia sistematikoki izan den eztabaidak elikatzea, zalantzak eta nahasmena sortuz eta hori, aurretik lortutako kontsentsu zienti-

ESSOATLANTIC ONTZIA

Petrolio ontzi hau da Exxon konpainiak erabilitakoa, atmosfera eta ozeanoen karbonoa ikertzeko.





"MERCHANTS OF DOUBT"

edo "Zalantza saltzaileak" liburuaren egileak, bi bazterretan –Naomi Oreskes eta Erik Conway.

fikoa hondatzeko asmoz. Egoera ba-koitzean taktika bera martxan jartzen zuten: ikerketa zientifikoei sinesgarritasuna kendu, faltsuzko informazioa zabaldu, nahasmena eta zalantza elikatu. Arduradunen izenak ematen dituzte ere bi historialariek, horien artean Bill Nierenberg, Fred Seitz eta Fred Singer, hiruak fisikariak eta sikario moduan lan egiten dabiltzanak tabako, kimika edo petrolioaren sektoreko konpainia handien interesentzat.

Mickaël Correia *Mediapart*-eko kazetariak ere izenak ematen ditu *Criminels climatiques* ("Klima kriminalak") liburuan, hiru enpresa handitan foku-

**Beti taktika bera
martxan jartzen zuten:
ikerketa zientifikoei
sinesgarritasuna kendu,
faltsuzko informazioa
zabaldu, nahasmena eta
zalantza elikatu**

ratuz: Saudi Aramco, China Energy eta Gazprom –bakoitzak bere estatuarekin lotura oso estuak dituenak-. Erregai fosilen enpresak, estatuak eta bankuak, eta hiruen arteko ate birakarien sistemak azaltzen ditu Correiak, horien ondorio negatiboak nola sozializatzen diren erakutsiz. Hiru konklusio nagusi ateratzen ditu: zalantza saltzaileen aurka justiziara jo behar dela, haien azpiegiturak blokatzeko estrategiak garatu behar direla, eta industria fosilen langileekiko aliantzak sortu beharra.

Datozen urteetan baliteke zalantza saltzaileen eginkizunak gero eta aurkari gehiago topatzea. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com



Mirian Otxotorena

ARTZAIN AKTIBISTA



FAMILIA-USTIATEGIA AMAITUTA DAGO, PERTSONA BAKARRAK EZIN DU DENA EGIN ETA FAMILIA HIPOTEKATZEA ERE EZ DA BIDEA



Gazta eta gazta artean hamaika bilera, dei eta txosten egiten ditu Mirian Otxotorena Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko presidenteak. Ekoizpen ekologikoa eta nekaritza soziala bultzatzea etorkizunerako giltza dela aldarrikatzen du.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Hiritik herrirako aldaketa zergatik egin zenuen?

Bikotea eta biok Iruñean bizi ginen, baina erabaki genuen herri batean bizi nahi genuela. Landa eremua beti maite izan dut eta argi nuen zerbait egin nahi nuela. Etxe eta herri bila hasi ginen mendialdean, baina ez da batere erraza herrietan etxebizitzarik aurkitzea.

Buelta asko eman ondoren aitaren herrira jo genuen, Iturgoienara. Han familiaren etxearen zati bat utzi ziguten eta hura moldatu genuen.

Garai hartan lana Iruñean nuen EHNE sindikatuan eta joan-etorrian ibiltzen nintzen. Lehen semea jaio zenean, ordea, erabaki nuen herrian gelditzea, ez

nuelako dena bateragarria ikusten. Hasieran landetxe bat zabaldu nuen ahizparekin batera eta beranduago ardiak eta behorrak jarri eta gazta egiten hasi nintzen.

Nola ikasi duzu ofizioa?

Hanka sartze handiak eginez eta poliki-poliki. Artzain bakarra gelditzen zen herrian. 50 ardi baino ez zituen eta ez zuen gaztarik egiten, beraz laguntza handirik ezin zidan eman eta nire kabuz hasi nintzen. Hasieran ez nuen argi zerazienda mota jarri. Niri behiak eta behorrak gustatzen zitzaizkidan, baina ardiak Andia eta Urbanan modu estentsiboan haztea eta gazta egitea bideragarriagoa ikus-

ten nuen. Behorrak ere baditut baina ez diet hainbeste etekinik ikusten. Oso ongi egokitzen dira eremu horretara baina nik haragi hori ez dudanez jaten zaila ikusten nuen hori saltzen saiatzea.

Behiekin ikusten dudana da kanpoko bazkarekiko menpekotasun gehiago dutela. Guk ditugun belaiekin ardiak hobeto moldatzen dira. Ardi esnearekin, gainera, gazta eta bestelako produktuak egin ditzakezu eta hori sortzaileagoa iruditzen zait. Gainera gu bertan gaude eta egunero Andimendira edo Trinitatera igotzen gara, goizean eta arratsaldean. Egun 300 bat ardi eta hamabost behor ditugu. 3.000 kilo inguru gazta egiten dut urtean eta salmenta zuzena egiten

Mirian Otxotorena

IRUÑEA, 1972



Nekazal Ingeniaritza ikasi zuen Almunia de Doña Godinan, Zaragozan (Aragoi). Artzaina eta Axuribeltz izeneko gaztaren egilea da. Iturgoien 300 ardi latxa eta hamabost behor ditu, Andimendian bazkatzen dutenak. 2021etik CPAEN-NNPEK, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko presidentea da.

dugu etxean, Iruñean eta Lizarrako ekomerkatueta eta Ekoalderen bitartez zenbait jantoki kolektibo, kontsumo talde eta dendatara iristen gara.

Aurten uda lehor eta beroa izan dugu. Zuentzat nola joan da?

Oso urte txarra doa eta emigratze-ko beharra izan dugu. Andimendian belar aski ez zegoenez, beldur ginen ardiak udazkenean ez ote ziren egongo behar baino argalago eta ahulago. Hala izatekotan, gerta daiteke estaltzeko indarrak ez izatea eta, ondorioz, kume gutxiago ekartzea. Negurako badugu beste bazkaleku bat Gesalaz bailarako Garisoain herrian. Normalean behorrak hara eramaten ditugu elur gutxiago egiten duelako, eta aurten abuztuan behorrak eta ardiak eramane ditugu hara. Ez da goiko belarra bezain aberatsa, baina behintzat jana badute eta ez dugu ibili behar belarra erosten eta mendira igotzen.

Etxalde askotan neguko belarra ari dira orain bazkatzen eta, gainera, negu honetarako belar gutxi dago udaberriari euri gutxi egin zuelako. Nik beltza ikusten dut etorkizuna, baina udaberri ikusten dut horrela. Oraindik badugu esperantza, hala ere.

Ekaitz on batzuk botata belarra aterako litzateke, gure lurra horretarako oso ona baita. Ur gutxirekin belar ona ateratzen da.

Uda hau hemendik aurrerako hotzera izan dela diote adituek...

Hori horrela baldin bada, gure artzain bizi-modua aldatu beharko dugu. Beste toki batzuetan jendea nekazaritza uzteko beharrean dago, bada guk berdin egin beharko dugu gauzak okertzen badira. Urte bat eusten ahal diogu bazka gutxirekin edo trahumantzia egiten, baina horrela bada betirako, gure bizimodua desagertuko da.

Eta zer egin behar dugu?

Horri gizarte bezala eman beharko diogu erantzuna. Aspaldi ohararazi ziguten eta oraindik jarraitzen dugu kasurik egin gabe. Soluziobide globalak planteatu beharrean, irtenbide indibidualak bilatzen ari gara. Hau da, bero itzela baldin badator aire girtua

jarriko dut etxean. Indibidualki pentsatzen dugu nola pasako dugun bero hori, baina zer dagoen atzetik begiratu gabe. Gure ongizatean baizik ez dugu pentsatzen.

Kontzienteko gara orain gure elikadurak duen garrantziaz?

Gogoeta horiek batzuek egiten dituzte, baina beste askok ez. Oso ikuspuntu desberdinak daude gizarten. Ukrainako gerraren ondorioen aurrean, adibidez, batzuek esango dizute bertako ekoizpena biderkatzea dela aterabidea. Ekoizpen bolumena lehenesten dute, moduari erreparatu gabe. Kopuru handiak lortzeko ongarri kimikoak eta pestizidak erabili behar badira berdin dio. Ingurumena, nekazaritza iraunkorra, nekazaritza soziala... hori dena bazterrean uzten dute. Beste batzuek, aldiz, ikusten dute klima aldaketa dela eta, nekazaritza eta abeltzaintza aldatuta sakonak egin behar direla, eta ekologikorantz abiatzen dira. Egia da Europar Batasunak gogoeta bat egin duela orain, lehen inoiz egin ez zuena, eta horren ondorioz *Itun Berdea* eta *Baserritik mahaira* estrategiak abian jarri dituela. Batzuentzat hankamotz gelditzen da eta besteentzat gehiegi da, baina behintzat itxaropen puntu bat ematen digu.

“Nafarroan orain %7a da ekoizpen ekologikoa. %25era iristea posiblea da, baina horretarako neurri eraginkorrik jarri behar dira eta aldaketa antolatu”

2030erako ekoizpenaren %25 ekologikoa izatea lortu nahi da?

Hori ezarri dute helburu gisa, baina ekoizpen konbentzionalen erabiltzen diren pestizidak, antibiotikoak eta hormonak kopuruak gutxitzea ere. Batzuek uste dute hori ekintza ildo bat besterik ez dela, aholku moduko bat, baina ez bete beharreko agindu bat. Hemen behintzat, Nafarroan, gobernuak hartu zuen estrategia hori bultzatzeko konpromisoa, larrialdi klimatikoari lotuta. Hala ere, egun batetik bestera nekazaritza sistema eta egitura guztiak aldatzea zaila da. Horretarako sinetsi egin behar da horretan eta hemen, oro har, betiko martxan jarraitzen dugu. Nafarroan nekazaritza oso intentsiboa da, Europa osoan bezala. Hori da azken urteotan bultzatu dena eta orain horri buelta ematea asko kostako da.



Urruti gaude Nafarroan helburu horretatik?

Orain %7 da ekoizpen ekologikoa. %25era iristea posiblea da, baina horretarako neurri eraginkorrak jarri behar dira eta aldaketa antolatatu, bestela nekazaritza ekologikoak handitzen jarraituko du, baina oso erritmo motelean eta Europako trena galduko dugu.

Aurtengo lehen seihilekoan 108 partaide berri gehitu dira Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseilura (NNPEK). Nola baloratzen duzue?

NNPEK bezala oso modu positiboan baloratzen dugu. Orain 800 inguru gaude. Aurten NPBk (Nekazaritzako Politika Bateratua) bazituen dirulaguntzak ekoizpen ekologikoan alta ematen zuten nekazariarentzat. Aurreko urteotakoa baino handiagoa izan da igoera, neurri batean Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza egon delako. Argi dago batzuek ekologikora etorri direla gehiago dirulaguntzarengatik kontzientziarengatik baino. Hor eztabaidatu daiteke. Hala eta guztiz ere, orain 70.000 hektarea inguru dugu ekologikoan, inoiz baino gehiago, eta hori ona da.

Sektoreka ikusten da, adibidez, Arguedas eta inguru horretan kooperatiben bitartez bultzatu dutela zerealak eta arroza modu ekologikoan ekoiztea. Abeltzaintzan, bai ardietan bai behietan gehitu dira ustiategi berriak eta Lesakan operadore batek alta eman du ahuakateak ekoizteko. Ondo dago probatzea eta produktu desberdinetan lortzen badugu aurrera egitea, hori ere ongi etorria.

“Ekologikoa” zigilua preziatua da?

Guk gehiago ikusten dugu egiten dugunaren aitortza bezala. Egia esan, merkatu batzuetan pisu handiagoa du bestee-tan baino. Niri gazta erosten didanari, adibidez, berdin zaio zigilua izatea edo ez, badakielako nola eta zerez egina dagoen, eta hori da bilatzen duena. Nekazaritzan eta elikaduran azken urte haue-tan sortu dugun nahaste-borrastearekin kontsumitzaile batzuek jada ez dakite zer den ekologikoa, artisaua, naturala... Batzuek kontzientziarekin erosten dute, baina besteek, aldiz, ez diote hainbeste-ko garrantzirik ematen.

Produktu ekologikoak non saltzen dira gehiago, bertan edo kanpoan?

Denetarik dago. Batzuek hurbileko merkatuetan saldu nahi dugu eta beste batzuek, aldiz, kanpoko merkatuetan saltzeko erronka dute. European eta beste toki batzuetan ere kontsumitzaile ekologikoaren potentzial handia dago, hemen baino gehiago. Nafarroa betidanik esportatzailea izan da eta enpresa handiak ekoizpen ekologikora batu dira merkatu horiek mantentzeko. Hori garbi ikusten da Erriberako enpresa handietan. Kontzientzia desberdinak badirela ikusten da.

Ekologikoarekiko interesik sumatzen da ekoizle gazteen artean?

Oso gutxi. Hala ere, ekoizle berrien inguruko informazioa ematen denean, zenbat diren emakumezkoak zehazten da, edota zer sektoretan arituko diren, baina ekoizteko moduz ez da ezer esaten. Emakumeen presentzia nekazaritzan

ikusaraztea garrantzitsua eta pozgarria da, baina besteaz ere hitz egin beharko litzateke.

Europako egitasmoekin bat egin nahi badugu, diruz lagundu behar ditugu has-ten diren nekazari berriak %100 ekolo-gikoak izan daitezen. Errazagoa da has-tea nekazaritza eredu batean, gero aldaketa egitea baino.

Zaila da gazteentzat, oro har, lehen sektorean lanean hastea?

Ez da batere erraza. Nekazaritza anto-latuta dagoen bezala, gero eta zailagoa da. Lurra falta da, herrietan daudenek jarraitzea zaila dute, eta sektoretik kan-poko jendea behar da. Landa eremu bizia nahi badugu, nekazaritza soziala nahi badugu, nekazari gazteak behar di-tugu. Gaur egun, 30 urtetik beherako 40 bat nekazari soilik dago Nafarroan. Niri askotan gaztea naizela esaten dida-te eta 50 urte ditut. Hor zerbait gaziki dago. Hori landu beharreko zerbait da. Gazteak sartzea, ekologikoan sartzea eta nekazariak egindako nekazaritza behar ditugu.

Nola lortu daiteke hori?

Nekazaritza industrialari mugak jarritz, baliabideen banaketa eta diru laguntzak beste modu batez kudeatuz. Sartzen den jende berriak soldata bat eduki behar-ko luke, ezin delako nekazaritzan hasi eta bien bitartean beste toki batean ere lanean ibili bizi ahal izateko. Hasieran ez du etekinik ematen eta kosta egiten da ustiategi bat martxan jartzea. Fami-lia-ustiategiaren eredu amaituta dago nire iritziz. Pertsona bakarrak ezin du

dena egin eta familia hipotekatzea ere ez da bidea. Oso nekazari gutxi dago gaur egun eta gazteen artean formulak bilatu behar dira baserrietan elkarlanean aritzeko. Zaila da baina moduak bilatu behar ditugu jendeak denbora libreza izateko eta neurriko lana egiteko. Egokiena litzateke kooperatiba edo elkarte txikiak eratzea lana eta denbora modu egokiagoan banatzeko. Badira halako esperientziak hemen Euskal Herrian eta nik uste dut etorkizunean hala izan behar duela, bestela akabo.

Zer da Ekoalde?

Ekoizpen ekologikoan ari garen 70 bat ekoizleren banaketa plataforma da. Horrela elkarrekin iristen gara bai denda eta taberna txikietara, bai jantoki kolektiboetara.

Jantoki kolektiboen alorra da gehien handitzen ari dena. Iruñeko haur-eskoletako jantokiak hornitzen hasi gara eta orain Nafarroako Ospitalearekin ari gara solasean produktu batzuekin has-teko; eta bagaude harremanetan etxeko etxeko zerbitzuarekin, ikastetxe gehiagorekin, adinekoen zenbait egoitzarekin eta enpresa batzuekin.

Bertakoa eta ekologikoa bultzatuz administrazioetik ekoizleei ere laguntzen zaie. Jantoki kolektiboetan aritzeak, esate baterako, gure arteko antolaketa ekarri du eta baita produktuen dibertsifikazioa ere.

Errigora ekimena nola baloratzen duzu?

Oso positiboa da euskararen aldetik, baita Erriberako ekoizpena baloreari jarri duelako ere, elikadura burujabetza filosofiaren ikuspegitik. Esparru askotan kontzientzia hartzeko ekimen indartsua da.

Iruñean hilean behin egiten duzuen Ekomerkatuarekin pozik zaudete?

Bai. Iruditzen zitzaigun hirian egon behar genuela, kontsumitzaileei zuzenean erosteko aukera emateko; aldi berean, iruditzen zaigu Ekomerkatua hor dagoela, baina oso modu prekarioan. Udalaren borondatearen menpe gaude eta hilabetero egiteko aukera ez dugu ziurtatuta. Urtero, uztailean sanferminengatik eta azaroan Nuevo Futuro elkartearen merkatua jartzen delako, ezin dugu egin, baina aurten, gainera, esan

digute urrian ezin dela egin eta beste hilabete batean ere ez ping-pong lehiaketa bat dagoelako. Hori gertatzen da benetan sinesten ez dutelako. Guk beti beste hiri batzuetako udalek bultzatutako azoken adibideak jartzen dizkiegu: Zaragoza, Madril, Sevilla edo Valladolid... Hemen Nafarroan garai bateko ekoizleen merkatuak akabatu ziren, Gipuzkoan edo Bizkaian ez bezala, eta udalen laguntza behar dugu; arazoa da ez dutela sinesten halako eredian.

Zergatik onartu zenuen NNPEK-ko presidente kargua?

Pentsatzen dudalako zerbait egin daitekeela beste nekazaritza eredu baten alde. Batzuen ahotsa entzunarazteko aukera ematen du kargu honetan egoteak. Gizarte bezala iruditzen zait tontotuta gaudela. Nahiko ezkorra naiz orokorrean. Pentsatzeko ahalmena galtzen ari gara. Bakoitzak bere esparruan, beti ditugauz borrokatzeko. Lana eta borroka egin behar da.

Idilikoa da zure bizimodua?


Ez! Kaotikoa da, baina ikasi dut kaosean bizitzen. ●



Zure zain egongo gara!

Irailak 16, 17 eta 18 · Noingo Zentzumenen Parkea Nafarroako VII Azoka Ekologikoa

*Elikagai ekologikoen merkatua · Gastronomía espazioa
Haurrentzako espazioa · Jarduerak eta tailerrak
...eta beste sorpresa asko!*



www.navarraecologica.org



Zergatik dugun ezinbestekoa independentzia



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Herri edo Nazio bat dagoen lekuan, gaurko Mundu honetan, Estatu propioa ezinbestekoa da, Nazio horren biziraupena ziurtatzeko, besterik gabe. Euskaldunok Historian dugun ibilbideak hori frogatu digu, eta une honetan bizi dugun garaiak are argiago agertzen digu Estatu independentea izatearen premia.

Zergatik dugu ezinbestekoa Estatu independentea? Estatu orok sistema propioa osatzen duelako, Nazio edo Herri zehatz baten nortasun ezaugarri nagusietan ardatz hartuta. Hizkuntza, Kultura, Lurraldetasuna, Historia partekatua, Komunitate kontzientzia, hauek izan ohi dira ezaugarriak. Euskal Herria Nazioa da ezaugarri hauek partekatzen dituen neurrian, baina gaur egun ez du ezaugarri horiek babesteko sistema propioa, eta ez dabil bide horretan. Are okerragoa dena, Euskal Herriaren nortasun ezaugarri propioak ahultzen ari dira eta guztiz galtzeko zorian ere egon daitezke, okerreko bide honetan.

Zergatik diogu okerreko bidea dela gaurko hau? Euskal Herrian ez dugulako gaur egun proposamen politiko sinetsagarriarik Estatu independente bat osatzeko bide egingarria eskaintzen digunik. Izan ere, indar politiko abertzale kontsideratuak oso bestelako dinamika politikoetan integraturik agertzen zaizkigu. Begira dezagun Ipar zein Hego Euskal Herrira: kasu batean zein bestean, Parisen edo Madrilen zein gobernu mota

Estatu espainiarra eta frantziarra sistema egituratu eta itxiak dira, eta horien funtzio nagusia da bere baitan beste sistema independenterik sortzeko edozein bide ezabatzea

eratzen den eta txandakako gobernu horiekin nolako harreman mota antolatua, horra hor alderdi horien kezka politiko nagusia azkenaldian. Jarrera horien justifikazioa beti izaten da aurrera pausuak eman beharra, eta hori lortzeko bide bakartzat, norbere boto kopuruan gora egiteko premia. Zer gertatzen da, baina, ondorioz? Balizko helburu taktiko horietara bidean, indarrean diren Estatu espainiarraren eta frantziarraren sistemak indartu egiten direla, biak ala biak, eta euskaldunok sistema propioa lortzeko bidea lausotu, ilundu eta, azkenean, ezabatu.

Kontua da Estatu espainiarra eta frantziarra, biak ere, sistema egituratu eta itxiak direla, eta horien funtzio nagusia dela bere baitan beste sistema independenterik sortzeko edozein bide

ezabatzea. Orduan, sistema horietan integraturik jokatzeko duten euskal alderdiek azken finean Estatu bi horiek indartu egiten dituzte, eta euskal Estatu baten aukera baztertu (hitzez noizbehinka bestelakorik esan arren). Adibideak argiak dira: “elebitasun” faltsuak euskara zulora darama, espainiera konstituzioz derrigortzen delako (hau da, unibertetsala bihurtzen delako) euskaldunon artean, eta euskara aldiz ez. Botere exekutibo edota legegilearen antolaketan, euskal alderdiak konpartsa bihurtzen dituzte, sistema politiko nagusia Estatu mailakoa delako (eta euskal alderdiek horrela izatea onartu dutelako). Botere judiziala deituan, beste horrenbeste.

Aldaketa kualitatiboa gertatzen ari da euskal naziotasunaren kontzientzia subjektiboan, euskal alderdien jokabide horren ondorioz. Dinamika horretan harrapatuak, belaunaldi berriek batez ere, nazio kontzientzia propioa galdu eta naturalizat hartzen ari dira sistema espainiarra edo frantziarra, sistema baikoitzaren arlo nagusi guztietan: espainieraz edo frantsesez mintzatzen dira naturaltasun osoz, metropoliaren kultura adierazpen guztiak bereganatzen dituzte, eroso sentitzen dira nortasun horiek inposatuak direla sentitu gabe.

Euskal subjektibitate berritua sortzea da gaur egungo premia, nazio gintza berrituaren bitartez. Gaur egungo krisi egoeratik prozesu berritzaile abiatu beharra. ●

Gure goseak



**KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE**
LITERATUR ZALEA

ANTTON OLARIAGA

Zutabe hau idazten dudan unean, ikasturtea ez da hasia, oraino oporretan nago. Sartzeari pentsatzean, gogora heldu zaidan irudia da lehen lan eguneko agurra, eta saihestezineko galdera: “Orduan, bakantza goxoak pasatu dituzuia?”, eta egia erran beharko: bai, uda goxoa iragan dut, etxekoekin, mendian. Bizkitartean, gure inguruan zorigaitzak azkar jo du jendea: bat supituki hil, besteak bere buruaz beste egin, hari berriz minbizia agertu... giro orokor hits eta beldurgarrian. Gerla eta gosete mehatxuak hor dauzkagu, Europaren atarian, ohartzen hasiak gara barbarismoa ate joka zaigula. Ez dakit ahalke beharko nukkeen erratea gozatu ditudala harremanak haur eta bizilagunarekin, bakan ikusten ditudan familiakoekin eta herritarrekin, baratzea zaintzen, musika egiten eta irakurtzen, erratea saiatu naizela ene baitako ikara eta zalantzak hezten. Ez dakit luzaz atxikitzeko postura izanen dudan hori, lan garaiko zurrumbilo lehertzaileari ihes egiten ahalgo diodan, baina bederen, hara, bai, uda goxoa iragan dut.

Ene plazer handienetarik izan da ezagutzen ez nituen liburu batzuk leitzea, eta neurtzea zenbateraino oihartzun egiten duten ene baitan. Aurtengo *Hatsaren*

poesia bildumak eta Lizar Begoñaren *Le-pardo japoniarrak* azken olerki liburuak, deszentratzera gonbidatzen gaituzte. Marie Alinek joan den apirilean argitaratu *Les Bouffeurs anonymes* (Jale anonimokoak) distopia berezia, janariari lotu plazer eta arauak arakatzen ditu. Eleberririk horretan, Estatu autoritario batek hiritarren osasun babesean eta ongizatean bermatua du bere zilegitasuna, eta bereziki elikaduraren kontrolean oinarritua du bere diktadura. Protagonista kritikari gastronomikoa da, Estatuak asmatu arauak zabaltzen ibiltzen dena. Pixkanaka, giza baitako abere jiteaz gogoetatzerara behartua da, natura eta gizartearen arteko harremanez hausnartzen du, eta funtsezko galderak egiten: zer jan, nola, eta sustu nola kudeatu jendearen gose fisiko eta moralak izadiak eta antolaketa politikoek eskaini diezaiokeen hazkurrarekin?

Ondotik irakurri dudana, antzerkia da, Karel Čapek txekiarrarena, 1937 urtekoa: *La Maladie blanche* (Eritasun zuria), aurtentzua frantsesera. Modu absurdo eta groteskoan, dramaturgoak asmatzen du Txinatik hedatu dela eritasun biziki kutsakorra, milioika heriotza eragiten dituen. European, ikerlariak

zoin gehiagoka ikusten dira sendagailu bila, gobernatzaileak egoeraz baliatzen gezurrak zabaltzeko eta hedabideak manipulatzeko... Batzuek ametsetako parada ikusten dute egoera horretan gerla pizteko, autoritarismoa inposatzeko, aterabide estakurua. Baina hara agertzen dela Galén medikua: denek igurikatu artamena atzeman du! Haatik, Estatu buruzagiei erraten die artamena sekretua salatuko diela erabakitzen badute gerlarik gehiago ez egitea... Ah, COVID 19aren kontrako txerto enpresetako nagusiek hau irakurri eta bere egin balute!

Azkenik, Karel Čapek idazle horren beste liburua irakurri dut, hori iaz itzulia frantsesera: *L'Année du Jardinier* (“Baratzezainaren urtea”). Obra filosofiko-poetiko horretan, autoreak baratzezainaren eginbeharrak, esperantzak eta beldurrak aipatzen ditu, ondorioztatuz gizakiak umil egon behar duela naturaren aitzinean: natura ezin da kontrolatu, jabetza kontzeptuak ezin du preso ezarri. Baratzea eta mundua ez daitezke mugatu eta gureganatu. Irakaspen horren arabera beharko genituzke neurtu gure ekintzak, gure goseak eta aseak elkartzasunez zainduz. ●

Jatorrizko jarraibideak



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Ameriketako herri indigena batzuek sortu zituzten *jatorrizko jarraibideak*, planetan bizitza zaintzeko. Horien artean dago Potawattomie herria, edo *eskertzen dakien herria*. *Jatorrizko jarraibide* horiekin elkarrekiko harremanak antolatzen zituzten, bai eta haien inguruko edozein motatako bizitza ere. Leinu horretakoek pentsatzen zuten komunitateari eta lurrari eskatzen zitzaiena modu batean edo bestean berriro itzuli behar zitzaizela. Halaber, argi asko zuten zeinek zaintzen zituen komunitateko kideak, eta zeinek ez.

Egungo munduan, horrelako kulturei leku gutxi geratu zaie. Izan ere, kapitalismoak eta kolonialismoak herri indigenei desplazamenduak inposatu zizkieten, eta horrela, haien ohitura eta sustraiak desagertzeko zorian daude. Hala ere, mendeetan, herri indigena horiek beren modura gainditu dituzte klaseen arteko borroka eta genero diskriminazioa; azken finean, komunitatearen elkar zaintzak ez baitie biderik ematen esplotazioari edo pertsonen arteko ezberdintasunari.

Gure herrian ere, sistema kapitalistaren garapenaren ondorioz, desplazamendu asko inposatu dizkigute. Gure lurraren eta komunitatearen arteko loturak gero eta ahulagoak dira. Herri bezala, planeta honetan bizitzeko *jatorrizko jarraibideak* galtzen ari gara, hau

da, elkar zaintzeko trebetasuna eta eza-gupideak.

Gauzak dezente koropilatu dira, eta denbora luzea eman behar izan dugu gure esparru ideologikoa finkatzen. Aspaldian kapitalismoaren bozeramaileek ideologiaren heriotza deklaratu arren, Euskal Herrian hamaika ildo politiko berri agertu dira. Orain dela hamarkada batzuk, oro har, bi ziren hizpide nagusiak: giza klase batekoa izatea eta herri identitatea. Eta horien arabera, aukeratu genuen non kokatu gure zaintza eremuak, geuretzat eta gure ondokoentzat. Baina, orain, gure aldameneko edozein persona edo talde etsai bihurtzen dugu. Edozein ahots ezberdin segidan baztertzen dugu, bere esparru ideologikoa ukatuz, eta, agian, ez gara konturatzen halako jarrerarekin poliki-poliki gure jatorrizko komunitatea desegiten ari dela.

Nire ustez, indigenen *jatorrizko jarraibideak* aplikatuko bagenitu herri bezala, askoz argiago geratuko litzateke zeinek zaintzen dituen benetan gure herriko pertsonak eta ingurua, eta zeinek soilik nahi duen sistemaren barruan bere lekuari eutsi; zeinek defendatzen dituen bere pribilegioak, eta zein saiatzen den guztion bizitza defendatzen komunitate bezala. Baliteke begirada sinpleegia izatea, baina lurra lokazten denean, niri, behintzat, nire lekua aurkitzen laguntzen dit. ●

Tanaru



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Zuloko india' izengoitia zeukan gizona zendu da uda honetan. 1990eko hamarkadaz geroztik Amazonian eratorrian ibiltzen zen, bata bestearen ondotik, bere sendiko kideak oro desagertzen ziren arau. 2018an, Funai erakunde brasildarreko teknikari batek gizon horrekiko topaketa furtiboaren argazkia hartu zuen. Ez zen sekula izan Tanaruren tribuarekiko harremanik, aterpeak eta bizitokiak lur pean zulatzen zituztelako. Horregatik izengoitia.

Iragan agorrilaren 23an hilik atzeman zuten Boliviako mugetan. Hogeita hamar urteotan 8.000 hektareako ere-

muan zehar galtzen zen, oinez, inguruan bere lurraldea jaten, ausikitzen, suntsitzen zebilzkiola urre bilatzaile eta basoak erauzteko enpresa ilegalak. Ba omen dira, Brasilen, giza zuriarekiko kontakturik ez duten jendalde autoktonoekiko 114 leku. 800.000 indigena baizik ez dira gelditzen herrialde erraldoi horren bihotzean.

Bakartasunik handienez joan da beraz Tanaru, bere jendaldeko azken iraulea. Ezin uka genozidio bat izan zela, nahitara egin zena, gure mahaietako haragia eta gure autoetako bioenergiak ekoizteko lur gosez zetozen abere hazleen eskutik.

Gogoan atxiki dezagula... ●

Emakumea, artea, kartzela eta borroka (I)



ITZIAR MORENO MARTÍNEZ
EUSKAL PRESO POLITIKOIA

Goizeko zazpiak dira Rennese-ko kartzelan. Erdi-esna, lo-erdi, ohean nago, amets gozoetan uger. Krauk-krauk! Ziegako atea irekitzen da tupustean. “*Vous avez une heure pour vider la cellule*”, zaunka atetik. Banaramate. Extradizio bidaia. Eskolta. Eskuburdinak. Aginduak. Zorabioa. Kaserna zikinak. Orduak zain. Hegazkina. Leihotatik jostailuzko mendiak eta landa-eremu karratuak, marroiak eta berdeak, puzzle batean bezala; ederra da, hunkitzen naiz. Euskal Herria begiesten dut han behean txiker; eta itsasoa, harro bezain amaigabe. Itsasoa... Malkoei eusten diet. Policía Nacional: “*Usted se viene con nosotros*”. Eskuburdinak. “*Siéntese aquí*”. Furgoia. Beroa. Izerdia. Alcalá-Meco. Frantziar harresietatik espainiar murrutara. Dena itxuraldatzen da, egiazki, deus ez aldatzeko.

Zuk arrazoi, Griselidis: aurpegiarik gabeko hirien bihotzetan, harresi garaien artean, pare-parekoa da abesten entzuten den isiltasuna. Gorputzik gabeko zarata, ahorik gabeko oihuak. Gure Ortzi ere bera eta berdina da, ordea, eta topikoak topiko, haren begirada bilatzen dut barroteen artetik, hesien gainetik... finean, kotoizko jirafak topatzeko, han, urrunean. Begiekin marrazten ditut hodeiak eta, bat-batean, oroitzen naiz.

Orduan bai, iluntasunean, Rosarekin batera bizitzari irri egiten diot, sekretu

Bizitza ezeztatzen
duen hilobi hotz
bezain gogor honetan,
adoreak, baloreak
eta koloreak
topatzen ditugu

magiko bat ezagutuko bagenu lez, guk biok baino ez. Okerra eta goibela den oro argi eta ongizate bihurtzen duena. Baze-ken Olgak berak ere, preso egonagatik, aberatsak garelara; badugulako zerbait, zera... zer eta bizitzatik aske omen dabil-tzan askok, maiz, ez duten zera hori.

Eta zer inporta zer garen, ezta Louise? Gure garaiko mozkinak baino ez baikara, gure akatsekin eta baita dohaineekin ere. Gure egitea da garrantzia duen bakarra: gu nor garen baino, gizateriarentzat geratuko dena gu desagertuko garenean.

Eta bai, Griselidis, bizitza ezeztatzen duen hilobi hotz bezain gogor honetan, adoreak, baloreak eta koloreak topatzen ditugu, euren harrizko urdailak gure haginekin apurtzeko; piztia ezezagunen atzetik lasterka besoak barreiatzeko; ilargia zuhaitzetatik hartu eta, euriaz

orlegi garelara, izarren odolean, lurrak irekitako erraien bidean aurrera egiteko... ASKATASUNA izan bedi gure betiko maitale.

Beharbada horregatik izango da, Zehra, atea gurutzatzean atzera begiratu gero, zaurituta sentituko garelara, hegal bat txarrantxan lotuta geratuko zaion txoriaren antzera; ez engoitik preso, ezta arras aske ere. Bada orduan ere, osterara ere, lepoan hartu eta segiko dugu aldarrikapenez sortzen, margoez, hitzez eta ekintzez sistemari aurre egiten. Azken batean, irudimenez borrokatzen jarraitzeak askatuko baitu hegoak moztu ezineko txorien hegaldia.

Griselidis Real puta, idazle eta aktibistak, kartzelan zegoela, ezinegonak margotu eta ametsak idazten zituen. Rosa Luxenburgo, Olga Benario eta Louise Michel iraultzaileek erbesteko eguzki gupidagabeen zein adreilu-harresien itzalpean poesiarekin egiten zuten hegan eta borrokan. Zehra Dogan artista eta kazetari kurduak, pinturen faltan, janari ustelarekin marrazten zuen emakumez lepo zegoen ziegan.

Hauek guztiak zein barruan topatutako kide askok erakutsi didate, urteotan, borroka, feminismoa eta sorkuntzaren arteko lotura estua; hain justu ere, odol beraren zainak direla. Beraien hitzak nireekin josi ditut testu hau idazteko, zuen oroimenez, ereduz eta omenez. ●

“Gure haragia ekologiko gisa ziurtatzeak balioa gehitzen dio, oso atsegina da eta jendeak eskertzen du.”
—
IGNACIO SUESCUN
Abeltzaina, PETILLA ARAGOI

**ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**

CPAEN
NNPEK
EKOLOGIKOA

ALIMENTOS ECOLÓGICOS
DE NAVARRA
**eko-
logikoak**
para vivir mejor

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
Marea Europea Agrícola de Navarra/Puzoa

cpaen.org
navarraecologica.org

2022ko
Super
hiriko
kolorea



Urtetako lanari esker ondo irabazita, Gasteiz jarraitu beharreko eredu bihurtu da Europan.

Pertsona aktibo eta konprometituak behar ditugu lidergo hori berresteko, eta Gasteiz **Europako superhiri** bihurtzeko, zu bezalako pertsonak.

ZUREKIN, ARE URRUNAGO IRITSIKO GARA

vitoria-gasteiz.org
#betigreen

betigreen!

ELB sindikatuak 40 urte

Etxalde ttipien alde, lau hamarkada borrokan eta aterabideen gauzapenean

Euskal Herriko Laborarien Batasuna sindikatuak 40 urte betetzen ditu aurten. Lau hamarkadaz baserriak arrunt aldatu dira, 2022ko baserri munduak ere gauza guti du ikusteko 1982koarekin. Hala ere, ikusirik Europako eta orokorrean Mendebaldeko herrietako lehen sektorearen bilakaera, badirudi beste lekuetan ez bezala, laborantza herrikoiak bizigarri eta erakargarri izaten segitzen duela Ipar Euskal Herrian. ELBko militanteek badakite, neurri handi batean, haiek eramandako borrokan emaitza dela. FDSEaren sistema produktibista borrokatzeko sortu zuten sindikatua, eta lau hamarkadaz aritu dira laborantza herrikoa sustatzen, argiki frogatuz hegemoniak bultzatu eredu ez dela bide zuzena.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Ordura arteko egituren baitan segitu, norabidea eta helburuak barnetik aldarazteko, edo norabide eta helburu propioak ukanen lituzkeen egitura berri bat sortu. Herriak eta etxaldeak duintasunez bizi-raziko lituzkeen laborantza eredu bat iparrorratz, eztabaida potolo hori zuten 1970eko hamarkada bukaeran Zuberoa, Baxenabarre eta Lapurdiko laborari gazte batzuek.

Garaian azkar sendi zirelako baserri munduaren bestelakotzea eta horren albo-kalteak: Bigarren Mundu Gerlaren biharamunetan ginen, laborantzaren modernizazioa eta horrekin errimatzen zuten intentsifikazioa bultzatzeko politikak planteatzen zebiltzan: zaldi eta idiak traktore eta makinek ordezkatu zituzten; landak berrantolatu zituzten, zuhaitz eta hesi berdeak moztuz; pestizida eta ongailu kimikoak erabiltzea kartuski gomendatua zen alde guzietarik...

Frantziak elikadura autosufizientzia eta esportatu ahal izateko gehigarria lortu ahal izateko makineria potolo bat bideratua zuen: AEBk Marshall planaren baitan banatu laguntzak, 1946an sortzen den FNSEA sindikatua, agronomia ikerketan dabilen INRA institutua, Laborantza Orientaziorako Legeak, laborantza eskoletako formakuntzak, dirulaguntzak eskuratzeko baldintzak... eredu produktibista sustatzearen alde jarri ziren guziak. Lortu zuten: 1945ean Frantziako Estatuko hamar laborarik 55 lagun elikatzen bazituzten, 1975ean 260 ahorena zuten asetzen.

Baina denentzako lekuri ez zen eredu berri horretan eta baserrien desagerpen basatiaren hastapenean ginen: 2,30 milioi baserri ziren 1955ean Frantzian; 1,59 milioi 1970ean; 1,26 milioi 1979an; 2000 urterako milioiaren langa azpira pasa zen, 663.800 baserrirekin eta gaur egun 390.000 dira. Ipar Euskal He-

rrian ere maldan behera egin zuten eta tendentziak segitzen du gaur egun ere: 2000tik 2010era 840 gutxiago dira, baserrien %25 da desagertu hamar urtez.

“Badakit ‘genozidio’ hitza ez dela arinki erabiltzekoa, eta dudan egon naiz erabili ala ez, baina erabiltzearen alde egin dut: dena bideratu dutelako baserriak desagerraraztera”, dio Jenofa Mendiboure ELBren sortzaileetan egondako Senpereko laborariak. Miarriztarra sortzez, ezagutzen ez zuten mundu bat zen etxaldearena, baina laborantza ikasketen kari egindako bi ikastaroetan laster ulertu zuen zer ez zuten nahi: “22 urterekin deskubritu nuen dena. Bi esperientzia ukan nituen, bata, Donapaleu ondoan, zorren pean itotzen ari zen laboraria, baina hala ere atera nahian, beti eta gehiago egiten ari zen; bestea, Charrente departamenduan, gizonak beti nahi zuten handitu, libratzen ziren lur guztiak nahi zituen, alta bakarrik zen!”.

Bere eginen zuen bidea deskubritu zuen eskolan –ez kurtsoetan, baina bai gelakideen bidez–: “Bretainiatik etorritako neska batzuk ezagutu nituen, horiek *travailleurs paysans* [laborari langileak] mugimenduan ziren, Bernard Lamberterekin [laborari borrokalaria sozialista] antolatzen hasiak ziren”.

FDSEAk sustengatu eta sustatu errealtate horren aurka eragiteko behar gorria ikusten zuen laborari multzo horrek. Baina nondik eraginkorrago izanen ziren? FDSEAREN barnetik edo ondotik, beste sindikatu bat sortuz? Hori zuten galdera. Eztabaida hori bazuten Frantzia mailako beste eskualdeetan ere, baina hemen gehitzen zitzaion lurrarekilako lotura berezia: Euskal Herrian ziren, FDSEAko bulegoetatik marrazturiko ekoizpen eredu produktibistak lekurik ez zuen lurralde batean –mendi aldea, baserri ttipiak, lurra, kultura, hizkuntza eta etxearekilako lotura azkarra...– eta tokiko berezitasunei erantzunen zien eragile baten beharra sentitzen zuten.

“Herritarrak lotu diragure borrokari, hori indar bat da, gure borrokak zabaldu dira, herritarren izpirituan sustraituak dira”

Panpi Sainte-Marie

Xede hori JAC baserri munduko gazte mugimendu katolikoaren baitan implikatzearekin batera sortu zitzairen anitzi.

Eztabaida eraman bitartean, FDSEAn eta CDJAn [FDSEari loturiko gazte sindikatua] segitzen zuten buru-belarri. “Gazte horiek engaiatu ziren ez baitez-

pada egitura horien ideiekin ados zirelaketoz, bainan bertze laborari guziak hor izanez heiekin izaiteko”, oroitzen du Peio Iralur ELBren sortzaileetan izandakoak. Ardura eta erabaki postuak hartzen zituzten eta ordura arte FDSEAREN baitan ikusi gabeko ekintzak eta leloak bideratzen ere lortzen zuten, bistan da, sindikatuko goragokoen kezua piztuz. Bat aipatzearen, agalakzia eritasunak Ipar Euskal Herriko artaldeak bortizki kutsatu zituen 1970eko hamarkada bukaeran, eta orduan emandako erantzuna nabarmentzen du ELBren sortzaileen artean egondako Bernadette Oillarburuk. FDSEAko Paueko eta piramidaren kaskoek ez zituzten batere artzain kaltetuak lagundu eta hortik gutira mobilizatu ziren ELB sortuko zutenak –FDSEAREN izenean, beraz–: “Artoa, artoa, artoa eta behi haragitakoak, besterik ez zuten buruan [FDSEAKOAK], ez ziren batere mugitu artzainek indemnizazioak eskuratzeko. Guk manifestazio bat egin genuen, eta prefekturara ere joan ginen

Lehen urteetan ELBko emakumeek antolatu zituzten manifestazioak beraien aldarripenak plazaratzeko. Generoaren araberako ezberdintasunekin bukatzea galdetzen zuten, izan formakuntzak, erretretak edota diru-laguntzak errezibitzeko orduan.



indemnizazio dosierrak bideratzeko". ARGIA honetako azalean doan argazkia une horretan harturikoa da.

Ez zuten berehala trenkatu eta luze iraun zuen tirabirak: zazpi-zortzi urte. Talde bat bazuten osaturik –“40en taldea”– zeinetan elkartzen ziren FDSEAn eta CDJAn zebiltzan 40 laborari abertzale, lehen sektorearen analisia egiteko, laborarien arrangurei buruz gogoetatzeko, eskakizunak eta borroka estrategiak adosteko... 40en taldea-n onduko zen ELB sindikatuaren ideia. Gogoeta aberastu nahian ekarrarazi zituzten Frantzia mailako laborari ezkertiarrek, tartean Bernard Lambert bera.

EMAZTEEN GUTUNAK AZELERATURIKO ERABAKIA

Sindikatu berri bat sortzeko aukera indartu zuen 1981ean Alderdi Sozialistako François Mitterrandek Frantziako presidentetza irabazi izanak. Hain zuzen, ordura arte FDSEAk zuen monopolioaren bukaera hitz emana zuen, aski fite gauzatuko zuena gainera. Sindikatu hori “erabat gaketua” zelako eta barnean geldituz gauza guti aldatu zitezkeela ondorioztaturik sortu zuten 1982ko urriaren 30ean Euskal Herriko Laborarien Batasuna. Frantzia mailako CNSTP Langile Laborarien Sindikatuen Konfederazio Nazionalaren parte egin ziren.

Baina beste osagai erabakigarri bat ere izan zen: 1981eko abenduaren 3an 40en taldea-n zebiltzan emakume batzuk idatzitako gutuna. Hainbat argumentu emanik, honela bukatzen zuten gutuna: “Ez dugu gehiago FDSEaren kide izan nahi. Iduritzen zaigu zerbaitegiteko momentu egokia dela. Erabakia hartzen dugunon artean bakarrik emazteak gara, baina ez gara emazteen komisioren izenean mintzo eta atea zabalik duzue denek. Anitz bagina, egitura azkar bat sortzeko baldintza gehiago genituzke, tartean, aholkulari juridiko eta animatzaileekin. CNSTP Langile laborarien Sindikatuen Konfederazio Nazionalako langile batekin harremanetan gara, lan bilera bat bideratzeko –batez ere informazio bilera litaikena–. Data laster zehaztekoa dugu. Topaketa horren ondotik irudikatu genezake zeozert sortzea”. Bileran irakurri zuten gutuna eta begi onez hartua izan zela oroitzen dute izenpetzaileek. Hortik gutira sortuko zuten ELB, 1982ko urriaren. Beste batzuk FSP sindikatu osatzeko hautua egin zuten –hori Alderdi Sozialistari lotua zen–, baina ez zuten luzaz iraun.



Ekintzak, manifestazioak, okupazioak... ELB hastapenetik izan da mobilizazioaren bidez gauzak aldarazi dituen sindikatua.

“Ez gara borrokatzen den sindikatu bat bakarrik, eraikitzen duen sindikatua ere bagara. Gaur egun diren egitura anitz ELBkoek sortu zituzten”

Jenofa Mendiboure

Ipar Euskal Herriko kantonamenduen ordezkariak eta ekoizpen sail bakoitze-koak biltzen zituen 22 kideko talde bat hasi zen erregulariki biltzen eta sei laborariz osaturiko talde ttipiagoa ere bazen, sindikatuko lehendakariaren eginbeharra zuena –buru bakarra izaterik ez zutelako nahi–: Peio Iralur, Jenofa Mendiboure eta Bernadette Oillarburuk, baita Jean-Marie Algalarrondo, Mixel Berhokoirigoin, Arño Cachenautek ere osatzen zuten –garai berean sorturiko Laborari deitu sindikatuaren kazetaren zuzendari zen Jeannot Chilibolostek ere segitzen zituen batzarrak–.

HORTIK URTE BATERA, BOTOEN %29 IPAR EUSKAL HERRIAN

1983an ziren lehen sektorea kudeatzen duten Laborantza Ganberetako hauteskundeak eta Ipar Euskal Herri mailan bozen %29 eskuratu zuen ELBk. Etxalde ttipien aldeko mezua zabalduz egin zuten lehen kanpaina hori, FDSEAk sustaturiko sistema produktibistaren kalteak bistaratzu.

Jenofa Mendibourek oroitzen du behi esnearen sektorerako 1984an ezarri zen kuota sisteman ekoizpen eskubideak etxalde ttipiei bideratzearen alde borrokatu zirela eta hor lortu zutela laborarien arreta eta eskertza: “Kuoten gaia biziki garrantzitsua izan zen, etxalde ttipien alde borrokatu ginen eta laborariek ikusi zuten gu ginela bakarrak beraiei zerbaite eskaini nahian. Libratzen zen esne kantitatea etxalde ttipiei bideratzearen alde borrokatu ginen eta hori ikusi zuten”.

Behi esne kuota izan zen borroka inportantea baina horren gisara, beste anitz eramandakoa da ELB. Militante sare zabala eta determinatua zuten oinarrian eta egiten zituzten ekintza eta manifestazioetara jende multzo polita hurbiltzen zitzaien. “Ez zen oraingo manifestazioetan bezala, manifestazioa antolatu eta jendea hurbiltzen zela... Ba-



DANIEL VELEZ

Artzainek antolatuturiko manifestazioan poliziak kargatu zuen, laborari bat kolpatuz. 1977 urtean gara, ELB ez zen oraindik sortua, baina sindikatu hori sortuko zutenek antolatutuz zuten mobilizazioa.

zen azpiko lan handia, banan-bana jendea deitzen genuen, etortzea galdetuz. Baina bai, jendea heldu zen”, oroitzen du Mendibourek.

Alta, parean haien izena eta lana itsuski zikintzen aritzen ziren FD-SEAKoak. Mespretxuak eta irainak bortitzak ziren, hastapenetik lotuz ELB sindikatu ttipi eta ezgaiaren irudiari baita “bonba pausatzailea”-renari ere. Argitu zuten haiena, 1984ko urtarrilean plazaraturiko agiri batekin: indarkeriaren erabilpenaren hautuarekin ez zuten bat egiten –agiri horri gehitu zioten, bigarren bat zeinetan salatzen zituzten Estatuen errepresioa eta euskal errefuxiatuen hilketak-. Berrogei urteek erakutsi digute blokeo uneean, desobediencia-zibilaren eta ekintza-zuzenaren bideak lehenetsi dituztela borroka-tresna gisa.

“Laborantzaren estakuruz politika egiten duzue’ erran izan digute beti parekoek eta horrek esplikatzeko du nolaz praktiketan ederki ari ziren diren etxalde batzuk ez diren ELB-tan”. Abertzaleek zuten ELB sortu eta gaur egun ere abertzaleak dabilta borroka sindikal horretan. Baina sindikatuak dituen 600 ki-

deak ez dira denak abertzale, Panpi Sainte-Marie ELBko idazkari nagusiak zehazten duenez: “Jakin izan dugu kreta horretan ibiltzen: sindikalismoa –laborariak defenditu eta laborantza eta elikadura proiektu bat eraman- eta lurralde honetako herritar gisa hemen erabakitzekeo grina horren artean oreka atxikitzen asmatu dugu. Erabaki guneetan abertzaleak gara baina erabakiak hartzerakoak beti pentsatzen dugu entzunen gaituen laborariari, izan daitekeena Ezterentzubiako laboraria, beharbada frantses bozkatuko duena, horrentzat eta guzientzat ari garelako borrokan”.

Zerrenda osatzea luzeegi litzateke, baina laburbiltzeko erran daiteke zabal dela borroka-zelaira eta hona hemen osagai batzuk: gazteak baserrian instalatuz segida bermatzearen aldekoak, lurraren espekulazioaren kontrakoak, lanaren truke diru-sartze duin bat errezibitzearen aldekoa, transgenikoen kontrakoak, kalitatean oinarrituriko ekoizpenen aldekoa, etxalde ttipiak sustengatuko lituzkeen Nekazaritza Politika Bateratu baten aldekoa, laborantza munduaren desoreka dakarten na-



Bernard Lambert

“laborari langile”

kontzeptuaren teorizatzailea

Bernard Lambert laborari sindikalistaren hausnarketatik elikatutak dira ELBren sortzaileak. Besteak beste, 1981ean ekarrarazi zuten hitzaldi bat ematera. Paysans travailleurs (“Laborari langileak”) kontzeptuaren teorizatzailea, 1960ko hamarkadan loraturiko laborarien ezkerreko mugimendu berriaren bultzatzaile izandakoa da. Laborari semea, bretoaia, zehazkiago Loira Atlantikoetako, formakuntza politikoa JAC mugimenduan egin zuen, baserri munduko beste militante ezkertiar anitzen gisara. Hogei urterekin, 1951n lotuko zen gurasoen baserriaren segidari, berehala zentratuz laborarien eskubideen aldeko borrokan. Iraultza ezagutzeko gisan, laborarien mobilizazio masiboak –horri tiraka osatuko zuten 1970eko hamarkadan laborari langileen mugimendua eta industriako langileekilako aliantzak osatzeko beharra ikusten zuten. 1970ean plazaratu zuten *Les paysans dans la lutte des classes* (“Laborariak klase borrokan”), Marxen begiradatik aztertuz laborantzaren antolaketa. Hori aitzin, politikaren esparrutik aritu zen ideiak zabaltzen, diputatu gisa 1958tik 1962ra. FDSEA-ren eredu produktibistaren kritika osatzeko determinatzaileak izan dira bere hausnarketak, Ipar Euskal Herrian bezala Frantziako beste xokoetan ere bai. 1981ean berak eta beste batzuk sortu zuten CNSTP Laborari Langileen Sindikatuen Konfederazio Nazionala, tartean ELB ere barne biltzen zuena.

1984an zendu zen istripuz, eta bat-bateko ezbeharrak pena handiaren erdian utzi zuten laborari ezkertiarren sarea. Euskal Herritik ere joan ziren laborariak ehorzketetara, zor ziztaion azken agurra egitera. Hortik hiru urtera sortuko zen berak ereindako ideietatik Confédération Paysanne sindikatu, ELB ere kide duena –CNSTP eta FNPS Laborarien Sindikatuen Federazio Nazionala elkartuz-.



Baionako suprefetura aitzinean egin izan dituzte usu mobilizazioak / ARGAZKIA: ELB



Okupazioa izan da ELBk behin baino gehiagotan erabili duen borroka bidea / JENOFA BERHOKOIRIGOIN

zioarteko eta lekuko agroindustria enpresen kalteen salaketa eta beste. Euskal Herriko etxalde ttipiak defenditzeaz gain, mundu mailako eskubideen alde ere mobilizatzen den sindikatua da. Horregatik da Confederation Paysanne-n parte izateaz gain, nazioarteko Via Campesina sindikatuan ere bai.

“Haiek “[FDSEAkoak] sistema baten kudeatzaileak dira. Gu borrokarako sindikatua gara, legearen kontra joateko prest garenak. Zinez laborariak defenditzeko bururaino joaten direnak gu gara, FDSEA ez duzu sekulan auzitegian ikusten. Guk, ez dugu sistema hori kudeatu nahi, pentsatzen dugu aldatu behar dugula. Orain arte kapitalismoak, zein-gehiagoka horrek ikaragarri min egin digu: zenbat laborari dira desagertu? Zenbat etxalde dira hustu?” dio Sainte-Mariek.

Baina lurraldeko bestelako borroketan ere inplikatzeko dira: Ipar Euskal Herriaren aitortza instituzionala, euskararen ko-ofizialtasuna eta euskal unibertsitatea galdetzen dituen Batera plataforman; 1998ko Lizarra-Garazi akordioan eta gaur egun ere Bake Bidea-k antolatutako ekimenetan; Deiadar eta Korrika gisako hitzorduetan, eta abar.

EGITURA ANDANA SORTUZ

“Ez gara borrokatzen den sindikatu bat bakarrik, eraikitzen duen sindikatu bat ere gara. Ipar Euskal Herriko laborantza herrikoia baldin bada ELBri esker da. ELBk ez du dena egin, baina gaur egun diren egitura anitz ELBkoek sortu zituzten” dio Mendibourek.

Adibide gisa aipatu ditzakegu 1979an sortu zuten GFA Lurra, lurrak kolektiboki erosi eta lurrik gabekoak instalatzen laguntzeko egitura eta gaur egun aktibo den Lurzaindia-ren arbasoa dena; 1983an sorturiko AFOG elkarte, etxaldearen gestioan laguntzeko sortua, erabakietan laboraria ahal bezain burujabe izateko gisan; 1989an osatzen dute laborantza herrikoian dabilzen arteko sarea, gerora Idoki kalitate sormarka sortu zuena; 1991n muntatzen dute Arrapitz federazioa, laborantza garapen herriko baten gauzapenean dabilzan hamazazpi egitura kolektibo biltzen dituen; 1993an sortzen dute BLE elkarte, nekazaritza ekologikoan dabilzanentzat; izan Ossau Irati ardi gasnarentzat, Irulegiko arnoarentzat, Ezpeletako biperrarentzat eta Kintoa eskualdeko zerriarentzat adosturiko sormarkak; 2005ean Euskal Herriko

Laborantza Ganbera eta berriki, laborantza proiektua fintzen eta abiarazten laguntzeko Trebatu elkarte... guztiak ez aipatu arren, luzea da azken 40 urteetan sorturiko egituren zerrenda.

2001: LEHEN INDARRA IPAR EUSKAL HERRIAN

Departamendu mailako Laborantza Ganberak Zuberoa, Baxenabarre eta Lapurdiko errealitateari erantzuten ez ziolako, laster loratu zitzaizen Euskal Herriko egitura propio baten aldarrria. Parekoen eta Pariseren partetik sistematikoki errefusa izanik, ondoko mezuarekin osatu zuten 2001eko hauteskundearen kanpaina: garaile ateratzen bagara, Ipar Euskal Herriko behar duen egitura hori sortuko dugu. Bozketan horietan gertatu zen aldaketa: lehen aldikoz irabazle atera zen ELB, Zuberoa, Baxenabarre eta Lapurdiko botoen %51,16 lortuz –FDSEAk %45,30–. “Hogei urteko saria dira emaitzak, eta sinesgarritasun baita indar handia ere emanen digute borrokan segitzeko” adierazi zuen bozketen gauean, zerrendaburu zen Berhokoirigoin zenak.

Biarnoko emaitzak kontuan hartuz departamendu mailan FDSEAk segitzen



Azken urteetako borroka esanguratsuenetarikoa, hegazti gripeari aurre egiteko hartu neurrien kontrakoa. Laborantza herrikoiairen aldeko borroka darama ELBk. / ARGAZKIA: ELB

zuen irabazle eta Laborantza Ganberako bulegoan ELBkorik ez sartzeko hautua egin zuten, beste behin ere –gainera, Ipar Euskal Herriko emaitzak kontuan hartuko zituen aulki banaketa egitea errefusaturik, 33 aulkietatik bakarrik bi eskaini zituzten ELBkoei–.

Ipar Euskal Herrirako egitura sortzearen aldeko mozioa aurkeztu zuten beraz Berhokoirigoin eta Maryse Cachenaute ELBko hautetsiek baina Pauen gehiengoak erabaki zuen ez zela Laborantza Ganberaren eskumenetan horri buruz erabakitzea. Blokeoa ezin gehiago jasanik, bilkura gelatik atera ziren ELBko biak eta ez ziren berriz itzuli. Hortik lau urtera sortuko zuten Euskal Herriko Laborantza Ganbera eraikitzearen lanari lotu ziren.

1.000 lagunek ongi etorria eginik sortu zuten 2005eko urtarrilaren 15ean. FDSEak baita Frantziako Gobernuak jarritako trabei aurre egin behar izan zieten lehen urteetan –EHLG ilegala kontsideratu izana, dirulaguntzen errefusak, azien zerrenda luzea –guztiak irabazi zituen EHLGk–, mota ezberdinetako presioak–. “Auzi horiek traba gaituzte asko, eta memento berean azkartu gaituzte. Eta uste dut irabazi du-

gula laborari munduaren eta gizartearen zati inportante bat. Ikusi dute gure borroka zuzena zela, eta behar zela”, zion EHLGko lehendakari gisa auziperaturiko Berhokoirigoinak. Horren agerraldia zuten auzi egunetan epaitegiaren aitzinean baturiko ehunka herritarren sostengua.

Idea hori azpimarratzen du Sainte-Mariet ere, azken 40 urteen balorapena egiterakoan: “Beti erran dugu laborantza ez dela bakarrik laborarien afera, eta herritarrek lagundu behar gaituztela, azkenean jaten dutenaren ekoizle garelako. Horregatik ere dugu “laborantza eta elikadura politika”-z hitz egiten eta ez bakarrik laborantza politikaz. Irekidura hori lortu dugu eta herritarrak lotu dira gure borrokei. Hori indar bat da, gure borroka hedatu dira, herritarren izpirituan sustraituak dira. Beti erran izan dugu ez garela sindikatu korporatista bat, gaur egun zinez sentitzen da”. Adibide gisa ematen ditu lur espekulazioaren kontra eraman borroka edota hegazti gripeari aurre egiteko neurriak salatzeak egin protestak.

Lehen aldi hartatik hogeita urte pasa direla, laborarien artean lehen indarra izaten segitzen du ELBk, azkenik, 2019an botoen %54 baino gehiago lor-

turik. Laborarien eta herritarren sostengu hori ezinbestekoa du Sainte-Mariet, tartean, borrokari indarra ematen diolako. Gazte taldea ere badu sindikatua eta hor ukanen ditu biharko militante zenbait. Hala ere, egitura gehienek pairatzen duten militantziaren ahultzea ikusten du bozeramaileak. Arrazoen artean ondokoa nabarmentzen du: “Lehenago bazen jende gehiago ELBn. Baina hainbeste egitura sortu ditugu, non behar den jendea denetan eta gure indarrak barreiatuak dira. Inplikatzeko den jendea behar dute sortu ditugun egitura guztiek ere... Nonbait, arrakastaren ordaina dugu hori”.

Geroa nola ikusten duen galdeturik, idortek eta elikagaien gaineko espekulazioak bideraturiko udan kokatzen du erantzuna Sainte-Mariet: “Laborari batzuk biziki gaizki dira, aurtengo uda bezalako beste bizpahiru eta itoko dira! Ezin zaie gehiago erran ‘gehiago ekoiztu, egin mailegu berri bat eta hobeki izanen zara’. FDSEaren mezuak ez duela balio argi gelditzen ari da. Mezu hori hautsi behar dugu behin betikoz”. Parekoen mezuak hautsi eta haiena zabaldu, azken lau hamarkadetan egin izan duten gisara. ●

Izpuratik mezua:

“Ez dugu onartuko gure bizkar aberastu daitezen”

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN PATXI BELTZAIZ

Besta nagusi baldin bazen ere larunbatean Izpuran, kexua eta kezka plazaratzeko tartea hartu zuen ELBk, 40 urteen kari antolaturiko egunean. 300 bat lagunek manifestazioa burutu zuten Donibane Garazin, gaur egungo testuinguru ekonomiko salatzeko: lan-gastuen emendatzeak laborariak itotzen dituen bitartean, eragile handiak –bankuak, asurantzak, supermerkatuak, agroindustriako enpresak– geroz eta aberatsagoak dira.

Dela Ukrainako gerla, dela idortea, gaitz batzuen estakuruan bideratu logika espekulatuzailea salatu zuen laborantza herrikoiaren alde dabilen sindikatuak. “In-see institutuak dio %12 emendatuko dela janariaren prezioa. Gure etxaldeen sentitu duzue emendaketa hori? Ez. Ez badute dirua hobeki partekatzen aldaketa serio-sik bideratzen, orduan, ez gara helduko”, adierazi zuen Beñat Etxeto sindikalistak Market supermerkatuaren aitzinetik. Egoera aldatzen ez bada ekintzara pasako direla oroitaratzeko tartea hartu zuen: “Kasu, laborariak kexu gara; ELBren 40 urteek erakusten digute ekintza badela gure borroka tresna. Ondoko egunetan ere trama horretatik segitu beharko dugu”.

Crédit Agricole bankuaren aitzinean ere gelditu ziren, egoera desorekatu horren adibide ezin hobea izanik: aurten 9.000 milioi euroko etekinak atera zituen laborariak laguntzeko orduan uz-kurregi izan ohi den banku horrek. “Bipiltzen gaituzte. Proiektu ttipiekin beti mesfidati eta handiak laguntzen beti”, zion Maritxu Lopepek mikrofonotik.

BETI HANDIEN ALDE

Gaitzetsi zuten instituzioetatik, finantza egituretatik ala agroindustriarekin eskuz esku dabilen FDSEaren partetik bideratu laguntzak beti ekoizle handienei bideratuak direla. Nola ez, Europaren Nekazaritza Politika, 1962an abiatutikoa: “60 urte laborantza industrialaren alde, handiak handitzen laguntzen eta ttipiak desagerrarazten”, Mirentxu Auz-



kiren hitzetan. Hamarkadak dira orain ELBk eta Confédération Paysanne bezalako sindikatuak badutela bestelako politika bat landurik. Hori horrela, norabidez aldatzeko instituzioek duten “borrondate eta kuraia eskasa” salatuz, berantegi izan baino lehen “ardurak hartu” eta “etxaldeen duitasunez bizitzeko” laguntzak eta politikak galdetu zizkieten Europa zein estatuei.

Etxalde ttipien alde eta agroindustriaren kontra borrokatzen segituko dutela argi utzi zuen manifestazio hastapenean Jean-Paul Duhalde sindikatuko bozeramaileak: “Elkartasuna da gure

indarra, ELBren DNAn dugu elkartasuna, bide beretik segituko dugu”. Borroketan, parean, bidea moztu nahian dabilen FDSEaz ere bi hitz erran zituen bukaerako hitzartzean Panpi Sainte-Marie idazkari nagusiak: “Orain diskurtsoa aldatua dute, zintzoaren itxura hartzen dute, berdin ekologia ala biologikoa aipatuko digute. Baina ez: mertzenario batzuk dira, agroindustriaren mertzenario batzuk, baina maleruski hor dira eta horiekin kontatu behar dugu”.

Txalo artean, ELBren borroka posible egiten duen militante sare zabala esker-tuz bukatu zen manifestazioa. ●



Tinko
euskarazko elkarteak

25
URTE
1993-2018

1993tik euskarazko zinea sustatzen

EUSKARA ZINEMA ARETOETARA 2022/23 IKASTURTEKO PROGRAMAZIOA



HH



LH 123



LH 456



DBH



- ✓ Zure inguruko zinema aretoan edo ikasgelan online ikusteko aukera
- ✓ Pedagogo eta psikologoek kurrikulumean oinarrituta garatutako ikas materiala barne
- ✓ Elkartasuna, familia, bullyinga, ingurugiroa lantzeko film arrakastatsuak
- ✓ Antolakuntza guztia Tinkoren esku

**INFORMAZIO
GEHIAGO ETA IZEN
EMATEAK:**
WWW.TINKOEUSKARA.EUS
TINKO@TINKOEUSKARA.EUS
943 31 00 36

KATHARINA PAVLETICH TXILEKO APRUEBO KANPAINAKO KIDEA

“Ikusi dugu konstituzioa ez dela aldatu ezin den testu bat, sinetsarazi nahi diguten bezala”



Irailaren 4an Txileko herritarrek argi utzi zuten ez dutela nahi Biltzar Konstituziogileak ondutako testu berria onartu: bozkatu zuten hamahiru milioi herritarretatik %62k (7.882.958 boto) ezezkoa eman zioten proposamenari, eta gainerako %38ak (4.860.093 boto) baiezkua. Inkestek iragarrita zuten ezezkoa gailenduko zela, baina askorentzat

kolpea izan da plebisziutaren emaitza. Horietako bat da Katharina Pavletich Heisig 35 urteko txiletarra, Frente Amplio alderdiko kidea eta Apruebo kanpainako bultzatzailea. ARGIAri azaldu dionez, “Txilek uko egin dio errotiko eta egiazko eraldaketa egiteko aukera historikoari”. Orain hausnarketa eta ikasketa garaia dela dio.

 LEIRE ARTOLA ARIN

Katharina Pavletichek ez zuen espero “inola ere” konstituzio berriaren proposamena ez onartzea “horrelako aldearekin”, eta emaitza pena handiz hartu duela aitortu dio ARGIAri: “Ezezkoa kolpe latza izan da gure eskubide sozialen bermerako; gure duintasunarentzat, berdintasunarentzat, inklusioarentzat, emakumeon eskubideentzat...”. Halere, ziur dago prozesu konstituziogileak jendartean eragina izan duela, eta hausnarketarako bidea ireki duela. “Positiboa da Txilek ikusi izana konstituzioa ez dela aldatu ezin den testu zurrun bat. Sinetsarazi nahi digutenaren kontrara,

eta nahiz eta testuak Augusto Pinocheten garaitik (1980tik) erro sakonak izan, ikusi dugu guk (herritarrok, langileok, ikasleek, desgaitasunak ditugun pertsonok, pentsionistek) edukiaren gainean erabaki dezakegula; orain arte pentsazina zen hori gure herrialdean”.

Pavletich soziologoa da, eta barnetik lan egin du prozesu konstituziogilean zein Apruebo-ren kanpainan; hautagai izan zen Biltzar Konstituziogileko kide izateko, aniztasun funtzionala duten pertsonen ordezkari gisa. Izan ere, ezohiko gaixotasun baten eraginez aulki gurpildunean dago, eta inklusioaren aldeko aktibista feminista eta politikoa da; besteak

beste, Comunes alderdiko militantea da, eta Gabriel Boric presidentearen gobernu programa osatzen parte hartu zuen, desgaitasunen eta inklusioaren arloan.

Baiezta duenez, konstituzio berriak aurrera ez egiteak txiletar guztiei egingo die kalte, baina batik bat jendartetik baztertutako pertsoneri: “Jarraitzen dugu baztertuta, ez gaituzte ikusten. Jarraitzen dugu aitortzarik izan gabe, ez gara existitzen”. Biltzar Konstituziogileko 154 pertsonak ondutako testuak Txile estatu parekide, plurinazional, sozial eta ekologiko gisa izendatu zuen, eta aurrerakoa eta feminista zen. Beraz, Pavletichek dio testuak aitortzen zituen



oinarrizko eskubide guztiak atzean geratu direla ezezkoaren garaipenarekin. Dena dela, uste du prozesuak emaitza positiboak ere utzi dituela: “Urte hauetako borrokan guk, orain arte ikusezinok, posizio aktiboa hartu dugu aldaketaren alde. Borrokako lehen ilaran jartzeak eragin du gutaz hitz egiten hastea, gu kontuan hartzen hastea”. Hasiera horrek segida behar duela azaldu du eta borrokatzeko asko falta zaiela ziurtatu.

“Urte hauetako borrokan guk, orain arte ikusezinok, posizio aktiboa hartu dugu aldaketaren alde”



ZERK HUTSEGIN DU?

Soziologoak bi ondorio nabarmendu ditu galdu osteko hausnarketatik, baiezkoak irabazi ez izanaren arrazoi gisa: Apruebo kanpainaren diseinuak “akats inportanteak” zituela, eta Rechazo-ren aldekoek boikota eta albiste faltsuak sustatu zituztela.

Plebiszitua irabazteko “giltzarri” izan dela uste du ezezkoaren aldekoek komunikabideetan izandako presentzia, eta Rechazo-ren kanpainak baliabideen %80 izan zuela azpimarratu du: “Elite politikoen eta ekonomikoen babesa zuten, eta haiei ez zaie komeni sistema aldatzea, hortik elikatzen direlako. Horregatik, publizitaterako ahalmen handiagoa izan zuten, eta medioetan presentzia handia”. Hori probestuta “difamazio kanpaina bat” abiatu zutela kritikatu du, albiste faltsuak zabalduz, besteren artean. Ohartarazi du estrategia horrek azken hamarkadan protagonismoa hartu duela mundu osoko eskuin muturraren kanpainetan, ez dela Txilen soilik gertatu.

Apruebo-ren eta Rechazo-ren kanpainak alderatu ditu Pavletichek, porrota ulertarazteko. “Rechazoren kanpaina zentratu zen batik bat aldaketarako beldurraren politikan, sistema desberdin batekiko ziurgabetasunean eta mesfidantzan. ‘Komunistak datoz’ edo ‘Venezuela bilakatuko gaituzte’ gisako esaldi sinpleak erabili zituzten, eta ez dugu asmatu mezu horiei aurka egiten behar bezala”.

Aprueboren aldekoek beste bide bat hartu zuten, ez dena nahikoa izan herritarren gehiengoa erakartzeko; dena dela, Pavletichek boluntarioen lanari balihoa eman dio. “Rechazok izan zituen baliabide ekonomikoetatik urrun, Apruebotik lortu zen herrialde osora hedatzea kanpaina bat, milaka etxe eta herritatik, bolondres masa handi bati esker, prest egon zirenak denbora emateko esperantza eta aldaketaren proiektu bati. Haiek gabe ezinezkoa zatekeen gauden tokira iristea, eta haiek gabe ezinezkoa izango da orain egitea dagokigun borrokari jarraipena ematea”, nabarmendu du.

ERALDAKETARI ERRESISTENTZIA

Zenbait adituren eta komunikabideren arabera, txiletarrak ez zeuden prest konstituzio aurrerakoi, feminista eta plurala martxan jartzeko. Pavletich beste iritzi batekoa da: nahiz eta ulertzen



MARTIN BERNETTI, AFP

duen proposamen berria “desberdina, apurtzailea eta eraldatzailea” izateak beldurra eta mesfidantza eragiten dituela, ez du onartzen txiletarrak ez daudela aldaketarako prest. Pedagogia egitean sinesten du, “egungo sistemagatik sufritzen duen gehiengo horri konfiantza emateko”, zeren aldaketagatik onurak jasoko dituen gehiengo hori izango baita, soziologoak gogorarazten duenez. Halere, aitortzen du “hain sinplea dirudiena” erdiestea ez dela erraza, “bereziki Rechazokoek beldurra elikatzen dutenean etsi-etsian”.

Aldaketarako gogoa, ordea, egon badagoela oroitarazi du. 2019ko urriaren 18an Txileko herriak matxinada piztu zuen, ikasleek sustatutakoa, eta hortik abiatu zen prozesu konstituziogilea. Gainera, irailaren 4an ezezkoa gailenduta ere aldaketarako protestek segitzen dutela azpimarratu du: “Txileko herriak behar duen eta galdegiten duen sistema-aldaketaren isla dira”.

Txileko herriaren nahiaren beste adi-

“Rechazokoek ‘komunistak datoz’ gisako esaldi sinpleak erabili zituzten, eta ez dugu asmatu mezu horiei aurre egiten behar bezala”



bide bat da 2020ko urriaren 25ean botoa eman zutenen %80k eskatu zuela Pinocheten diktadura garaiko konstituzioa aldatzea eta Biltzar Konstituziogilea eratzea. “Orduetik entzuten dira alda-

ketarako eskeak, Txilerako duintasuna eta justizia soziala exijitzen dituztenak”, ziurtatu du. Hain zuzen, Boric presidenten ezkertiarrek plebisziutuen emaitzak eman eta berehala jakinarazi zuen beste prozesu konstituziogile bat abiatuko duela. Pavletichek argi du egin beharreko bidea: “Boricen iragarri du prozesu konstituziogile berria, eta kongresutik abiatuko da, baina herri prozesu bati erantzun behar dio, parte hartzailea, partekidea eta demokratikoa dena”.

Porrota bide honetako beste pauso baten gisara ikusten du soziologoak, eta aldarrikatu du “indarrak batzeko eta berrartzeko” unea dela, konstituzio berri bat edukitzeko esperantzaz. “Gure lana da proposamen berriak edukia galdu ez dezan bermatzea, aldaketaren esentzia mantendu dezala, eta interes soziala gainjarri dadila eliteen interesei”. Pavletichek adierazi digunez, jarraituko du borrokan harik eta baztertutako pertsonen dagozkien eskubideak legeak espresuki aitortu arte. ●



Irailak 24
Abenduak 18

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea:

Laguntzailea:



“ ”

Monumentuak ez dira historia, boteretsuen bertsio interesatua dira, publizitatea besterik ez

Peio H. Riaño

Peio H. Riaño (1975, Madril) arte historialaria eta kazetaria da. Hainbat egunkari eta aldizkaritan egin du lan, besteak beste Público-ko kultura erredaktore buru izan da. Gaur egun, bere sinadura aurkituko duzu elDiario.es webgunean. Hainbat liburu ere idatzi du eta horietako baten harira elkartu gara berarekin:

Decapitados. George Floyden hilketaren ostean, erakunde publikoen arrazakeria salatzen protestek eraginda argitaratu zuen lan hori 2021ean. Garaian garaiko botereak espazio publikoan, estatua gisa, inposatzen dituen mito eta heroiei buruz Espainiako Estatuan idatzitako lan urrietako bat da.

 AXIER LOPEZ  DAVID CORROCHANO

Itxuraz, sinplea dirudi orainalditik iraganari begiratzea. Baina aspalditik datorren borroka kulturala da.

Bai, Aspaldidanik ari naiz ikertzen gaur egungo herritarrak artearen historiari buruz duen begirada. So horrek jarrera politikoa eskatzen du, eta horregatik, artearen historiografiak saihestu duen gaia da. Artelan oro testuinguru politiko, ekonomiko eta sozial baten ondorio da, baina historiografiak lanak isolatu egin nahi izan ditu, bere garaitik kanpoko gertakari plastiko bihurtuta. Horrek kontraesanak eta bazterketak eragin ditu. Nabarmenena emakumearen bazterketa da.

Kaleak militarrez beteta daude, apaiak, gotzainak, birjinak, esklabistak,

konkistatzaileak, enpresari aberatsak, politikari profesionalak... Ia denak gizonak, denak zuriak, guztiak garaian garaiko elitearekin lotutakoak.

Botereak espazio publikoan monumentu bat jartzea erabakitzen duenean –gehienetan omendutakoa gizona da–, agintarien interesekin lotuta dago, ez herritarren nahiekin. Nik planteatzen dudana da ondorengo belaunaldiek, guk, garai horietako oinordekook, zilegitasun osoa dugula jaso ditugun herentzia makabro horien aurka joateko. Nahikoa dela esateko unea da. XIX. mendearen amaieraz geroztik, estatua gisa sarrarazi dizkiguten iragarki horien artean bizi gara; harrigarriki orain arte ez gara gai izan gure kaleetatik erauzteko. Jada ez dugu zerikusirik haiekin. Estatua horiek

ez gaituzte ordezkatzen. Eta, hala ere, egungo ideia eta balore sozial, politiko eta ekonomiko gehienak ordezkatzen ez dituzten esklabistekin, diktadoreekin, boteretsuekin bizi behar dugu.

Galdetu gabe inposatu zena, baimenik eskatu gabe kendu behar al da? Edo, beste era batera esanda, non sortzen da espazio publikotik monumentu, estatua edo kale bat kentzeko legitimitat ea?

Ez dakit zergatik, agian batez ere eskuin muturrak ezeztatzailatzat (*cancelador* darabil berak) edo politikoki zuzentzat jotzeko beldurrez, ez gara ausartu gure kaleetatik burugabekeria horiek ateratzera. Herritarren legitimaziorik gabe zerbait eraikitzen denean espazio pu-



blikoan, ez dago bermerik herritarrek errespetatuko dutela ziurtatzeko. Be-launaldi batek errespetatzea dezake, baina hurrengoak esan dezake horrek ez duela zerikusirik berarekin. Hori da monumentuak iraungiarazten dituen oinarria

Madriren, adibidez, oso gauza bitxia biziko dugu. Udalak legionarioak omentzeko monumentu bat jartzea onartu du, paisaiaren eta monumentuen udal

batzordeko kideek zer sinatzen ari ziren jakin gabe. Hasiere batean, Oriente plazan jarri behar zuten, faxismoa bildu ohi den lekuan. Eragindako zalapartari esker, beste leku 'bortitz' batean jartzea erabaki zuten: Konstituzioaren omenezko monumentuaren aurrean. Legioaren jatorriari egindako omenaldia dela diote, eta horrela Gerra Zibilean eragin zuena saihesten saiatzen dira: talderik

odoltsuena izan zen Legioa. Soldadu armatu baten estatua da, gerran herritarrek sarraskitu zituztenen tankerakoa, Espainiako Estatua inbaditu zutenen modukoa. Ez dut uste 2022an Madrilgo Erkidegoa ordezkatzeko duen ikurra arma bat denik. Ez dakit, baina zalantzan jartzen dut.

Monumentu horrek etorkizunean azalduko du nolakoa zen 2022an madrildarrak gobernatzeko zituena. Eta orduan jakingo dugu José Luis Martínez Almeidak, Voxeko eta Ciudadanoseko kideekin batera, heriotza eta gerra omentzea erabaki zuela Madrilgo kaleetan, noiz eta gerra baten erdian.

Monumentu oro kapritxo politikoa al da?

Monumentuak historia dira? Ez, noski. Monumentu bat botatzen denean historiaren zati bat ezabatzen ari dela uste dutenek, zer lortu nahi dute? Bada, eztabaida faltsu baten bitartez justifikatu nahi dute erretiratze hori, propaganda baita, ez historia. Historiak idatzita, aztertuta, dokumentatuta eta historialariek argitaratuta jarraituko du. Monumentu oro iragarkia da, omentzen duen gertakariaren bertsio interesatua. Une zehatz bateko postala da, baina ez da historia, ezta gutxiago ere!

Munduko hainbat herrialdetan kolonialismoari edo esklabismoari lotutako estatuak erretiratzen ari ziren bitartean, Espainiako Estatuan isiltasuna nagusitu zen, gaiak gurekin loturarik ez balu bezala. Zer gertatzen da gai honetan?

Herritarrok ageriko subiranotasun falta dugu, batez ere eskuinak bultzatuta. Eta horrek isla zuzena du horrelako gaian. Espainiak edo haren alde botereitsuak gai honetan konplexuak dauzka. Adibidez, demokraziaren etorrerarekin, Espainiako jai nazionalaren eguna urriaren 12a izatea erabaki zuten, eta "Amerikaren aurkikuntza" ospatuko zutela. Beraz, ebatzi zuten, omendu beharrek beste kontinente batera iritsi izana oinarri zuen kontu patriotikoa zen. Espainiar abertzaleek sinetsarazi nahi digutenetik oso urrun, Espainiako Estatuaren ideia sinbolikoa beste kontinente batean oinarritzen da. Hau da, Espainia, berez, ez da. Espainia existitzen da beste kontinente bat "topatu" ostean. Urriaren 12aren bitartez esaten digutena da Espainia Amerikarik gabe ez litzatekeela existituko.

Niri oso barregarria iruditzen zait sinbolo gisa; izan ere, Espainia horretaz harro sentitu nahi badute, huts egin dute. Eta hortik aurrera, XIX. mendearen amaieran –Espainia kolonia guztiak “galtzen” hastearekin batera– eraikitako mito faltsuak zalantzan jartzen dituen guztia alboratzen dute. Mende hartan mugimendu erreazionarioa sortu zen, inoiz itzuliko ez den iraganaz harro sentiarazteko herritarrak. Nostalgia inperial horretatik, konkistatzaile handien kondaira sortzen da, gaur egun defendatzen jarraitzen “duguna”.

Eta egun Elkanoren irudi delikatu horretara iritsi gara. Figura bera defendatzen dute ezkerreko edo eskuineko euskal nazionalismoak eta espainiar nazionalismoak. Oso kontu irrigarria da; izan ere, espezialisten ikerketak irakurrita, ikusten duzu Elkanoren bidaia hartan gertatutakoa kasualitateen eta hondamendien segida bat dela. Mitoa askoz geroago dator eta gainera gaizki kozinatuta bezala dago, erdizka eginda balego lez. Mitoarekin batera heroitasa iristen da, eta omenaldiak egiten dira eta literatura ere sortzen da.

Oso ondo iruditzen zait gertaera historikoak ospatzea, baina atxikimendu-sentimendua sortzea, legenda politiko bat eraikitzea... distantziatik begiratu behar zaie, eta zalantzan jarri. Ospatu daiteke gizon bat, beste hainbatekin batera, bidaia al-

derrai eta tragiko baten ondoren, portura itzultzea, baina interesatzen zaidana da ikustea gure komunitateak mito hori nola landuko duen. Azkenean, ospakizun horiek definitzen zaituzte gizarte gisa. Herritarrok distantziak eta ikuspegi kritikoz begiratu beharko genituzke sinboloak eta iraganeko gertaerak, baina mitifikatutako figura bat orain berreraikitzen datozenak ere.

Badirudi oroitzapen ekitaldi eta mendeurren mota horiek guztiak ezin direla antolatu zilborrera begira bukatu gabe. Ezinezkoa dirudi gertaera historiko bat gogoratzea, erdigunean jarri gabe izan “ginena”, “gure” balentriak, lehenak, onenak “ginela”...

Ni oroitzapenen alde nago iragana gogoratzeko, betiere diskurtsoa historialariek zuzentzen badute. Datuekin, gertakariekin, testuinguruarekin –zergatia, ondorioak, biktimak...–, baina nobela baten eraikuntzan geratzen bagara, politika egiten ari gara.

Bai, baina historialarien artean ere bada eztabaidarik. Datu edo dokumentu historiko berean oinarrituta, oso bestelako diskurtsoak sor daitezke.

Bai, historia ez da bat eta bakarra. Baina nik behintzat nahiago dut eztabaida historialarien artekoa izatea. Iturrietan, dokumentuetan eta gertakarietan oinarritutako eztabaida serioa, iritzietan oinarritutakoa baino gehiago. Nahiago dut eztabaida hori gustu txarreko eztabaidak baino. Abertzaletasunak eraikitako sinboloak *kursiak* dira, sentimenduei dei egiten dietelako. Monumentuei buruz interesatzen zaidan gauza bakarra eraiki edo ospatzen diren unearen erretratua da. Behin mugarri interesatuak direla jakinda, jar dezagun zalantzan zer egiten duten hor. Norbaitek Edward Colston esklabista jarri zuen Bristolen, beste norbaitek Franco Espainiako hirietan... Erretiratu egin behar dira, museoetara bidali, testuinguruan jarri, eta historialariek azalduko dute zein arrazoik mugituta, zergatik erretiratu zuten sinbolo hori kaletik. Besterik ez. Ez dira historia. Omentzen dituzten gertakarietatik mende batzuetara gertatutako historiaren zati bat dira.


“ ”

Elkanoren figura defendatzen dute ezkerreko edo eskuineko euskal nazionalismoak eta espainiar nazionalismoak, oso kontu irrigarria da

Oso argudio manatua da ezin zaiola iraganari kritikoki begiratu orainaldiko begiekin, “beste garai bat” zelako. Presentismoa deitzen diote.

Presentismoarena oso bitxia da, soilik aplikatzen delako “figura horrek ez gaitu ordezkatzen” edo “ez dugu nahi kalean inbasioaren biktimen jarrera baztertzailek” diogunon aurka. Ez da aplikatzen, adibidez, omenezko monumentuaren aurka. barbarako, Cristo-

Colonen omenez Peruko Liman dagoen estatua. Argazkia: Wikipedia





bal Colonen monumentu bat dago Peru oraindik zutik dagoena, XIX. mendearen amaieran jarritakoa. Bertan agertzen da Colon Ameriketara iristen, lurreen belauniko dagoen emakume bati helduta, biztanleria indigena irudikatzen duena –nahiz eta Mendebaldeko aurpegi izan, eskultura Italian egin zelako –. Emakumeak errukia eta ebanjelizazioa eskatzen dizkio Coloni, konkistatzaileak esku bat eskaintzen dion bitartean eta bestean gurutze bat altxatuta duela. Monumentu hori lau mende lehenago gertatutako gertaera bati buruzko begirada interesatua da, baina horri ez diote presentismoa esaten.

Presentimoaren bandera astintzen duenak ahots kritikoa isilarazi nahi ditu, gure iraganaz gure buruari galderak ez egitea besterik ez du nahi. Nik nahiago dut, espainiarra naizen aldetik, “aurkikuntzaren”, inbasioaren biktimak aldarrikatzea. Espainiar gisa ez naiz alde militarrekin identifikatuta sentitzen, gertuago sentitzen ditut sarraski hartatik bizirik atera zirengandik. Eta gaur egun jende hori aldarrikatzea nahi dut, eta ez jatorrizko herriak eta herritarrak suntsitu zituzten espainiar militar horiek.

Hilketak, esklabotza, konkista, tortura, bortxaketa, homofobia... “iraganeko gehiegikeriak” dira, orduko “gizarte osoa ere horrelakoa” baitzen.

Hori da presentismoaren oinarria. Tesuingurua garrantzitsua da gertatu zena ulertzeko, baina ez gertakariak justifi-

“ ”
***Herritarrok ikuspegi
 kritikoz begiratu
 beharko genituzke
 sinboloak eta iraganeko
 gertaerak, baita
 mitifikatutako figura
 bat orain berreraikitzen
 datozenak ere***

katzeko. Aitzitik, historiaren funtzioa da dokumentatzea, agiriak aztertzea eta lanaren ondorioak bere gizarteari helaraztea, garaian garaiko gizarteak darabiltzan termino, esamolde eta hiztegiekin, gizartearen motxila ideologiko guztiarekin. Ez du zentzurik Amerikaren inbasioaren historiaz idaztea XV. mendeko gaztelera batean XXI. mendeko jendearentzat. Besteak beste, gertaera horiek orainalditik kontatu behar direlako. Genozidio batek ez du justifikaziorik, baina historiografiaren zati bat saiatu da berau justifikatzen Extremadurako militarren abentura-irrikaren izenean, Hernán Cortés kasu.

Inbasio baten erdian sarraskiak gertatu zirela, bada, hori kontatu eta esan behar da dagokion gisan: genozidioa.

Horrelako gertakarietarako espreski sortu dugun hitza erabili behar da. Berdina gertatzen da artelanetan. Adibidez, margo batek gizon batek “maitasuna” ukatu berri dion emakumea nola hiltzen duen irudikatzen badu, ezin dugu esan feminizidioa denik, koadroa Errenazimentukoa delako? Jakina baietz, horixe bera delako. Guk, gizarte subirano gisa, geure terminoekin azal dezakegu gertatutakoa. Gertaera berberak berriro errepikatu nahi ez baditugu, gure ikuspegitik kontatu behar dugu zer gertatu zen, ez, adibidez, 1492ko ikuspegitik.

Historia garatzen doa dokumentuen aurkikuntza berriekin ez ezik, kontatze-ko moduaren bitartez ere bai.


Migratutako pertsonen osatutako mugimenduek darabilten arrazismoaren aurkako diskurtso dekolonialistaren eta alderdi politikoaren edo ezker instituzionalaren diskurtsoen artean distantzia handia dagoela ematen du.

Egia da klase politikoak ez daukala arrazakeriaren aurka gizartearen zati batek duen mezua, atzerago dago. Izan ere, Espainia industria esklabista izan zen, eta hori antza ez dugu onartu nahi. Pentsa, Velázquezek berak ere bazuen bere esklabua. Ez dago ikerketa nahikorik gure iragan esklabistari buruz, begiratu nahi ez dugun iragan horri buruz. Gaur egungo gizarte arrazista sortzen lagundu du horrek. Gai tabua da. Ez diogu heldu nahi, nahiz eta migratzaileekin bizi den estatua izan, migratzaileak behar dituenak, behar ditugunak. Horri jaramonik egin gabe jarraitzen dugu, pasatzen uzten dugu, baina axolagabekeria hori arrazistak, eskuin muturra, indartzen ari da, eta desberdinaren aurkako gorroto diskurtsoa.

Herri orok ditu bere mito, sinbolo, erreferenteak... komunitatearen parte sentiarazteko. Baina kontu hauetan adostasuna lortzea ia ezinezkoa dirudi.

Jakina. Historialariak modu osasuntsuan bizi behar du gatazka hori, jakitun izanik bere lanak “egia” sortuko duela. Hori gutzia gatazka da. Gatazka erosotasunaren kontrakoa da.

Azken batean, interesdunarentzat omenaldia dena, benetan sortzen ari dena gatazka da. Hala ulertu behar da, eta horrelakotzat hartuta konpondu. Ez ditut monumentuak ukatzen, haien inposaketa da ukatu behar dena. ●



Griotak, Afrikako artxibo historiko biziak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Afrika mendebaldea, 1235 urte ingurua. Sundiata Keita printze mandingak Maliko Inperioa sortu zuen. Lau mendetik gora iraungo zuen inperio horren hastapenen berri Sundiataren Epopeiari esker daukagu, belaunaldiz belaunaldi griot izeneko bardoek ahoz transmititurik guganaino iritsi dena.

Griotei djeli edo jali ere esaten zaie, eta gaur egun oraindik Afrika mendebaldeko herrialde askotan jarraitzen dute. Sundiataren Epopeiak jasotzen duenez, printzearen aita Naré Maghann Konaték semeari Balla Fasséké izeneko griota eskaini zion bere gortean aholkuari gisa jardun zezan. Bada, Balla Fasséké Koyaté grioten leinuko sortzailatzat jotzen da eta leinu horrek gaur egunera arte iraun du. Enperadore edo errege familia bakoitzak bere griot leinua zeukan eta herri askok ere bazuten beren griota, jaiotzen, heriotzen, ezkontzen eta bestelakoen berri jasotzen eta zabaltzen zutenak.

Griotak ez dira igorle hutsak. Kantuan eta musika tresnetan trebatuta egoteaz gain, edukia sortzen eta eransten joaten dira, inprobisatu egiten dute, eta agintariak aholkulari gisa ere erabili izan dituzte. Francis Bebey idazle eta konpositore kamerundarrak “artxibo biziak” deitu zien.



ATLANTA BLACK STAR

Baina luzaroan artxibo ez fidagarritzat jo izan ditu europar historiografiak, esaterako, Sundiata bera existitu zela zalantzan jartzeraino. Ibn Khaldun historialari arabiarrek XIV. mendean jasotakoa hartu behar izan da kontuan griotek kantatutakoa neurri batean behintzat benetan gertatu zela onartzeko. Mendebaldeko historialariek tradizionalki

lehenetasuna eman izan die iturri idatziei, eta iturri europarrak objektiboagozat jo izan ditu. Baina, pixkanaka, aurrejuzkuak irentsi eta ahozko iturri horiek Afrikako historia ezagutzeko garrantzitsuak direla aitortzen hasi dira. Bitartean, Sundiataren Epopeia Mali, Gambia, Senegal eta Gineako hezkuntza curriculumen parte da. ●



MARISA RANIERI PANETTA

Ganadua %30 handitu zenekoa

CSICeko Milá y Fontanals erakundeko ikerlari talde batek Brontze Arotik hasi eta K.o. VI. mendera arteko Iberiar nahiz Italiar penintsulako 200.000 animalia arrasto inguru aztertu ditu, eta ondorioztatu du tarte horretan behien batez besteko tamaina asko handitu zela, %30 inguru.

Erromatarren garaian, populazioa kontzentratu ahala, haragi eskaera handitu zen, eta abeltzantza estentsi-

boa baztertu behar izan zuten. Eredu berriak abelburuak hazteko ur eta elikagai kantitate geroz eta handiagoak eskatzen zituen, eta beste ekoizle batzuekiko menpekotasuna ekarri zuen horrek. Ikerlariak antzekotasunak ikusten dituzte egungo kontsumo globalaren ereduarekin, eta horrelako ikerlan arkeologikoen etorkizunean abeltzantza eredu jasangarriagoak garatzen lagundu dezaketela uste dute. ●

LIBURUEZ SOLASEAN (II)

Txori urdinak

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zenbat esanahi, zenbat interpretazio izan ote ditzake *txori* hitzak. Zenbatetan erabili ote da, zenbat abes-titan, zenbat testutan, zein modu desberdinetan, zenbat zentzutan, hitz bera. Askatasunaren iragarle, baita sarraskiarena ere. Joan liteke hegan nahi duen lekuraino, lau paretan artetik ihesi, buruz bada ere; jaurti ditzakeen bitartean, baita ere, herri oso bat kiskaliko duten bonbak. Eta denak txori. Espetxeaz hitz egiten du txori urdinak. Kartzelaren erretratu bat jaso du Zigor Olabarriak Santi Cobos presoaren ahotik.

Urria bukaera aldera aurkeztu zuten liburua Gasteizko Hala Bediren lokalean eta orduz geroztik Durangon, Iruñean, Bilbon, Donostian, Baionan, Ortzaietan eta Gasteizko Errekaleor auzoan izan dira liburuz solasean. Liburuaz, eta aitzakia hori probestuz, espetxe sistemaz, zigorraren kulturaz, gatazkak mendeku eta biolentzia bidez konpontzeko ditugun moduez, hausnartu nahian. Hori baita, hasieratik, liburu hau egitearen helburua.

Liburuaz idazten ari zirela espetxeratu zuten berriz Cobos eta ezin du aurkezpenetan izan, beraz, beste modu batean presente egoten ahalegintzen dira: jartzen



Iazko Durangoko Azokan ere aurkeztu zuen liburua Zigor Olabarriak. URKO APAOLAZA / ARGIA

dituzte argazkiak, libururako grabatutako elkarrizketen audio zatiak... Santiren eta Zigorren artean azaltzen dute pixka bat liburua eta Olabarriak berak hausnarketarako bidea irekitzen du espetxe sistemaren eta zigorraren kulturaren inguruan. Segidan gonbidatuaren txanda –aurkezpen guztiak espetxearekin edo zigorraren kulturarekin erlazionatutako lagun baten eskutik egin baititu Olabarriak, gehienetan preso ohiak-. Eta honek ere hitz egiten du kartzelaz, baina bakoitzak bere moduan: batzuek bizipen pertsonalak kontatzen dituzte, espetxe sistema analizatzen dute beste batzuek... Bakoitzak bere moduan, eta horrek egiten du berezi.

“Liburuaren bigarren helburua ere bazen kartzelan sortzen diren preso *sozialen* eta preso *politikoen* arteko harre-

manak eta elkartasuna ikusaraztea. Espetxeak hori asko zigortzen du eta beti saiatzen da horiek moztzen, banatzen. FIES baten liburuaren aurkezpenaren preso politiko ohiak egotea jada bada zubi horiek eraikitzea eta polita izan da hori”, azaldu digu egileak.

Formatu desberdinetan egin izan dute eta egin daiteke aurkezpena. Modu ohi-koago batean, denok errazago irudikatzen dugun eran, bi hizlarik beren diskurtsoa bota eta galdera-erantzunen tartea irekiz, edo modu musikatuan, Ziklone taldeak libururako pasarte hautatuekin prestatutako abestiek. Inork interesik izango balu bere herrian, elkartean, horrelako solasaldiren bat antolatzeko, *solasaldiak@argia.eus* helbidera idaztea bezain sinplea da eta berehala jarriko dira zurekin harremanetan. ●



ENERITZ ARZALLUS / ARGIA

'Gure heroiak' Getarian

Juan Sebastian Elkanoren mundu biraren eta Euskal Herriko kolonialisten inguruko beste ikuspegi bat eskaintzen duen *Gure heroiak* liburua aurkeztu zuen Axier Lopez ARGIAko kazetariak Getarian irailaren 1ean. Berekin batera izan ziren, Gari Berasaluzek gidaturiko mahai-inguruan, Idoia Arrieta historialaria eta Luciana Alfaro Euskal Herriko Emakume Migratu eta Arrazializatuen Sareko kidea.

Getariako Berdura plaza lepo bete zuten han bildutako dozenaka lagunek. Ekitaldia osorik ikus daiteke multimedia atalean (QR kodeko loturan), eta liburua salgai dago *Azoka.argia.eus* webgunean.



MAHATSONDO ZAHARRENA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



Esloveniako Maribor hirian dago mahatsondo zaharrena. 450 urte ditu eta bere museo bilakatua da eusten duen etxea.

Handinahikeria ez da nonahi topatzen, toki guztietan baizik. Barazki edo fruitu erraldoiak ekoizten duen jendea badago. Ez dute mundu hau janzten duten gauzarik bilatzen: edertasuna, gozotasuna, osasuna, alaitasuna... Handia, soilik handiaren bila ari dira lanean. Eta ahal bada handiena: 116,4 kiloko kuiatxoia (*Cucurbita pepo* var. *pepo*), 3,12 kiloko alberjinia (*Solanum melongena*), 106 gramoko babarrun leka (*Phaseolus vulgaris*), 1,36 metro luzeko oin zuria duen porrua (*Allium porrum*), 1.226 kiloko kuia erraldoia (*Cucurbita pepo*), 5 kiloko patata (*Solanum tuberosum*), 34,4 kiloko aza (*Brassica oleracea* var. *capitata*), 122 kiloko angurria (*Citrullus lanatus* var. *lanatus*), 8,61 kiloko azenarioa (*Daucus carota*), 0,9 metroko luzokerra (*Cucumis sativus*), 14,1 kiloko azalorea (*Brassica oleracea* var. *botrytis*), 15,8 kiloko brokolioa (*Brassica oleracea* var. *italica*) eta abar.

Gure baratzeko erregina etorri berriak ere izugarritzko lanak ematen dizkie errekorzaleei, tomateak (*Solanum lycopersicum*) alegia: landare luzeena 19,8 metro, landare zabalena 85,46 metro koadro, ale gehien batera zituenak 1.355 kokkor; ale gehien eman zituenak 32.194 hazi zituen; ale handienak 5 kiloko pisua zuen; tomate barietate gehien dituen elkarteak 241 ditu; eta abar.

Badira beste marka batzuk bilatzen dituztenak ere. Gaztetxo bat egoskortu da, eta urtetako lanaren ondorioz lau metrotik gora luzatu den ekilorea lortu du (*Helianthus annuus*). Hazitik berak egiten du eta urtero luzeena den ekilorearen hazia bereizten du hurrengo urtean ereiteko.

Mahatsondoarekin (*Vitis vinifera*) ere bada sestra; izan ere, tartean dira ingeles moketazaleak. Handiena berriak omen dute, Hampton Courteko

jauregian, Lancelot Capability Brown paisajista sonatuak haginduta 1768an landatua. Lau metro perimetroko adar mordoia du oinean, eta 36 metro baino luzeago adartutako aihenak. Lagun bakarrak zaintzen du, eta bere mahatsa saldu egiten da; gehien eman duen urtean 383 kiloko uzta izan zen. Batzuetan, moketazaleak izaki, munduko zaharrena dela ere esaten dute. Baina horretan arerio latza dute Eslovenian. Hango Maribor hiriaren erdialdeko etxe baten aitzindegian, 450 urte dituen mahatsondo dute; pentsa, Erdi Aroan landatua. Propio beretzako museo bilakatua da eusten duen etxea. Oraindik mahatsa eman eta eman ari da, eta bestelako fruituak ere bai: jai sonatuak bere itzaletan egiten dira, eta turismo ardozalearentzako amu ederra da. Eta, moketazaleen amorrariorako, Guinness Errekorren etxeak ezagutzen den zaharrena bera dela dio. ●

“ETXEAN EGINA” XABOI PROIEKTUA “KOSMETIKAN ERE, BILGARRI POLITETIK HARAGO, BALOREEK GARRANTZIA DUTE EGUN”



GARAZI ZABALETA
 @TIRIKITRANN

Serge eta Audrey Nabais baigorriarrak daude Etxean Egina xaboi-ekoizpen proiektuaren atzean. 2015ean jarri zuen bikoteak egitasmoa martxan, eta tailerra eta denda Baigorriin dituzte egun. Hurbileko lehengaiak eta ekologikoak darabiltzate haien produktuetan; xaboiak, kremak eta baltsamoak egiten dituzte, eta inguru hurbilean saltzen. Haienez gain, filosofia berarekin ekoiztitzako bestelako kosmetika produktuak ere saltzen dituzte dendan, makillajea kasu. Proiektuaz eta haien ibilbideaz gehiago jakin nahi izan dugu, eta Audrey Nabais elkarrizketatu dugu horretarako.

Nondik nora iritsi zineten xaboi mundura?

Serge kontularia da ofizioz eta ni estetizista. Nire autodidakta ibilbideak kosmetika natural eta begetalean espezializatzerara eraman ninduen lehenik, eta geroago, saponifikazio hotzera. Lehengai gordinetatik —olio eta gurin begetalak, esentzia-olioak, erle argizaria, buztina edo aloe vera gela kasu— kosmetika egi-

tea beti interesatu zait, amalurrak guri eskaintzeko gauzarik onenak dituela uste dudalako. Bestetik, saponifikazio hotza deskubritu nuenean erabateko konbikzioa izan nuen, hotzean egindako xaboiak produktu ekologiko eta ekonomikoak delako bai ekoizpenaren aldetik eta baita erabilerarenetik ere.

Xaboiak egiteko ez duzue oliorik berotzen, beraz?

Hori da, gure fabrikazio metodoa hotzeko saponifikazioa da, gure amonek antzian egur errautsarekin erabiltzen zuten prozedura bera. Olio eta gurin begetalak darabiltzagu xaboiak egiteko, eta hotzeko metodoarekin lehengai horien propietate natural guztiak mantentzen ditugu, ez baita kozinatzen ezta tenperatura altuan berotzen.

Prozesu osoa zuek egiten duzue tailerrean?

Bai, tailerra eta denda ditugu Baigorriin, eta bertan egiten dugu dena. Eskala txiki eta artisauan gelditzea da gure asmoa, horrek esan nahi du eskuz egin nahi du-

gula lan, eta horrela egiten da gurean ia prozesu osoa, salbu makina hauek darabiltzagula: xaboiaren emultsioa egiteko irabiagailua, zenbait kosmetika produktutarako robot-irabiagailu bat eta aurrepikiko krema potoak betetzeko makinatxoak. Gozotegi baten antza du gure tailerrak!

Geroz eta gehiago begirutzen al zaio kosmetika produktuetan ere bertakoari eta ekologikoari? Zer sumatu duzue urteotako ibilbidean?

Esan dezaket duela hogeit hamar urte kosmetikaren munduan hasi nintzenetik gauzak asko aldatu direla. Lehen, kosmetika kontzionalarekiko interesa besterik ez zegoen, eta kosmetika produktuak haien etiketa edo bilgarriagatik ziren erakargarriak haien edukiagatik baino. Gaur egun, kontsumitzaileak askoz sentsibilizatuta daude: kalitateari eta kontsumo-etika egokia izateari ere garrantzia ematen diote, artisau txikian alde. Sumatzen dugu benetan badagoela gogoia balore eta etika batzuen arabera egindako produktuekiko. ●



PELIKULA PUSKETEZ OSATUTAKO IRUDIAK

Artea eta adierazpen artistikoak beti joan dira jendarte baina pauso bat aurrerago. Horregatik, badaude esaten dutenak emakume argazkilari baten lana legitimatzeko eta asimilatzeko ehun urte pasa behar direla, hori baita historiak –sistema patriarkalak– emakume horien lana dagokion bezala irakurtzeko behar duen denbora. Distantzia hori murrizteko dihardu lanean Donostiako Kutxa Kultur

Artegunea erakusketa-aretoak, bere programan artearen historia ofizialak alboratuta utzi dituen argazkilarien lana erreperatzen lan sendoa egiten ari den erakundea. Berenice Abbott, Vivian Mayer eta Margaret Watkinsen lanari eskainitako erakusketekin hasi zuen ibilbideak, oraingo honetan, Ruth Orkinen lanean egin du geldialdia: zinemagile bokazioa izan zuen argazkilari estatubatuarra.

 JONE ALAITZ URIARTE  RUTH ORKIN PHOTO ARCHIVE, NY

Ruth Orkin (Boston, 1921 - New York, 1985) Hollywoodeko zinema-estudioetan hazi zen, grabazioetarako set-en artean, klaketa hotsa hondoan eta 20ko hamarkadako aktoreen joan-etorriaren erdian; haren ama, Mary Ruby, zinema mutuko aktorea baitzen. Agian giro horretan hazi zelako, txikitatik izan zuen zinemagile izateko desira, kamera atzean jarri eta bere pelikulak idatzi eta zuzentzeko grina. Garai hartan, ordea, zineman lan egiten zuten emakume ia gehienak kamera aurrean kokatzen ziren, aktore lanetan, eta gutxi batzuek besterik ez zuten ekoizpenean edo pelikulen muntaketan lan egiten. Bide malkartsua zen emakumeentzat zineman aritzea. Alice Guy, Lois Weber eta Maya Deren izan ziren zuzendari gisa ibilbidea egitea lortu zuten gutxietakoak, eta orain gutxi arte, eskasak izan dira beraien lanetara egin dien hurbilpenak.

1940ko hamarkada hasieran, oztopoz beterik aurkeztzen zitzaion amets hura albo batera utzi eta Los Angeles City Collegen argazkilari-kazetaritza ikastea erabaki zuen Orkinek, eta ofizio horretan aritu zen hurrengo hamarka-

detan. 1943. urtean lanak New Yorkera eraman zuen, han baitzeuden garaiko aldizkari garrantzitsuenak eta haietako askorentzat egin zuen lana: *LIFE*, *Look*, *Ladies Home Journal*... *LIFE* aldizkariaren enkarguz Israelera eta Italiara bidaiatu zuen eta han ikusitakoak bere kamerarekin harrapatu zituen; horietako batzuk dira, besteak beste, *Ruth Orkin. Denboraren ilusioa* erakusketan ikusiko ditugunak.

Orkinen alabak, Mary Engelek, 37 urte daramatza bere amaren legatua zaintzen, zaharberritzen, ikertzen eta argitara ematen, Donostian ikusgai duguna moduko zabalkunde-erakusketak ahalbidetzeko. Ehunka albumez, negatiboz eta kontaktuen orriz osatutako funtsak Orkinen lanean inguruko irakurketa ugari egiteko abagunea eskaintzen du. Zentzu horretan, erakusketako komisarioa den Anne Morin frantsesak, Orkinen argazkietan zinematik jasotako keinuak, trikimailuak, egiteko moduak eta metodologiak azaleratu nahi izan ditu; izan ere, eta hauxe da erakusketaren tesia, irudi-finkoekin lan egiten bazuen ere, irudi horiek hurrenez hurren irakurrita, irudi sekuentzia edo mugimendua sortzen duten fotograma gisa irakur litezke.

Erakusketan ikusgai dagoen materiala lau multzotan banatu du komisarioak, eta hurbilpen bakoitza argazkiak zinemaren prisma ikusteko gonbidapena da. *Begirada dinamikoa* da erakusketak zabaltzen duen lehen kapitulua. Bertan, irudi zenital ugari ikusten ditugu, depresio ondorengo urteetako New York hiri sutsua argazki horien guztien hondo bilakatuta. Bere etxeko leihotik etengabe eraldatzen eta modernizatzen ari den hiria ikusten du, eta altuera horretatik, oinezkoen erretratu zenitalak harrapatzen ditu: marinelak, bikoteak, lagun kuadrillak... baita maratoiak, manifestazioak eta naturaren jantzi aldaketak sasoi batetik besterako igarobidean ere. Central Parkeko bere etxetik ateratako argazkiak *A World Through My Window* (Mundua nire leihotik) eta *More Pictures From My Window* (Argazki gehiago nire leihotik) liburuetan jasota daude.

Bigarren kapitularako bikoiztasunaren eta erdibitzearen ideia aukeratu du komisarioak, eta benetan interesgarria den argazki-aukeraketa egin du hainbat hamarkadetan egindako argazkiak sailkatzeko eran: argazki berean bi edo hiru pertsona ia-ia berdin jantzita ikusiko



ditugu, edo mugimendu bera egiten, segidan dauden fotogramak balira bezala, film-sekuentzia baten abiapuntua zatekeena. Zinemaren optikatik begiratuta narrazio bat eragiten duten irudi finkoak dira. *Two Women in Bathing Suits* (Bi emakume bainujantzian, 1948) da hauetan adierazgarrienetarikoa.

Sekuentziak ere aurkituko ditugu erakusketan, argazki multzo baten birtartez mugimendua sorrarazten duten irudiak. Kasu honetan kalean liburu bat irakurtzen ari diren umeak edo karta jokoan ari diren hiru umeren argazkiek, enkoadraketa bera mantenduz, *raccord* bat osatzen dute, sekuentzia oso bat; azkar ikusita, badirudi mugimendu propioa dutela. Umeak, umeen jolasak eta horien keinuak sarri ikusiko ditugu bere argazkietan erretratatuak.

1951. urtean Italian egonaldi bat egin zuen eta bertan Artearen Historia ikasten zebilen Nina Lee Craig ikasle amerikarra ezagutu zuen. Harekin, garai hartan bolidan jarri ziren foto-nobelak egiten hasi zen, zinemaren lengoaiara ekarrita, *story-board*-aren pareko direnak. *American Girl in Italy* (Neska amerikarra Italian, 1951) lanak irudi finkoek osatutako eszena narratiboa osatzen du, eta agian hori da Orkinen argazki serierik ezagunena. Narrazioaren ideiatik tiraka, 17 urte zituela Los Angelesetik New Yorkera *road trip* bat egin zuen bizikletan Orkinek, formatu ertaineko objektibo bakarreko Reflex 6 Pilot kamera lagun. 2000 milia egin zituen bizikletan, San Frantzisko, Arkansas, Chicago, Boston eta New York bezalako hiriak bisitatuz eta bidaiaria horietako argazkien edizioak denbora-linea kronolo-

giko batean aurkeztu zituen, *road movie* batean gaudenaren irudipena sortuz.

1952. urtean Morris Engels argazkilaria eta zinemagilearekin ezkondu zen Orkin. Harekin batera bere lehen pelikula idatzi eta zuzendu zuen, *Little Fugitive* (Iheslari txikia, 1953), AEBetako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiaren gidoi onenaren sarirako izendatua izan zena, eta Veneziako jaialdian proiektatu zena, zuzendari onenari ematen zaion Zilarrezko Lehoia saria irabaziz. Pelikula New Yorkeko uda giroan dago girotuta eta anaiak diren Joey eta Lenny umeen abenturak kontatzen ditu, kutsu komiko eta atseginarekin. Pelikulan ikusten ditugun New Yorkeko kaleak, Coney Island-eko hondartza eta zabuak, Orkinen argazkietan ikusiko ditugu islatuta. Horregatik, komisarioak pelikula honetako hiru sekuentzia aukeratu ditu publikoari ikusarazteko bere argazkietako konposizioak, planoak eta pertsonaiak nola izan ziren ondoren filmara eramanak. Kritikak filma goraiatu zuen bere garaian, eta esaten da François Truffaut-ek *Les quatre cents coups* (400 Kolpeak, 1959) filmatu zuenean, *Little Fugitive* filmaren ekoizpen estilo espontaneoan inspiratu zela, eta askoz geroago esan zuen *nouvelle vague* ez zela inoiz jaioko pelikula horregatik izan ez balitz.

Urte batzuk beranduago, 1955. urtean, *Lovers and Lollipops* (Amoranteak eta piruletak) pelikula filmatu zuen bikoteak elkarrekin, eta esan liteke horrekin Ruth Orkinen ametsa bete zela. Zalantzarik gabe, udarako plan polita da Orkinek bere kamerarekin harrapatu zituen momentu horien testigu izatea, film zatiz osatutako denbora bidaiaria honetan. ●





LIBURUA

Denontzako



FEMINISMOA DENON KONTUA DA BELL HOOKS

Itz.: Amaia Apalauza Ollo

KATAKRAK, 2018

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Gaur aurkeztuko dizuedan liburua bell hooks-ek idatzi zituen hamarnaka liburuetatik bat da, *Feminismoa denon kontua da. Politika pasio*. Pentsatuko duzue akats ortografiko bat egin berri dudala goiko lerrootan eta, gainera, ez dela bereziki feminista autorearen izena letra txikiz idaztea. Hautu bi egin zituen berak: bere amonaren izena hartzea, batetik, eta berarengandik bereizteko eta esaten zuenari –eta ez bere buruari– garrantzia emateko minuskulak erabiltzea, bestetik. Apaltasun lezio bat.

Aurkibidea irakurrita nahikoa da ukitzen dituen gaiak ugari direla jakiteko. Askotarikoak eta interesgarriak dira: “Ba, betikoak!”, esango duzue batzuek, “aspertu gara teoria feministaz.” Bada, bai, betiko gaiak badaude –kontzientzia, ahizpatasuna, heziketa, gorputza eta


ugalketa eskubideak, edertasuna...-. Baina badaude hain ohikoak ez diren gaiak ere –indarkeria deuseztatzea, maskulinitate feminista, lesbianismoa eta feminismoa, espiritualtasun feminista eta abar-. Klaseak eta arrazak gurutzatutako autoreak ez dio horri ere muzin egingen. Gurean erreferente ezagunena Angel Davis bada ere, hooksek egindako ekarpena kontuan hartzekoa da, bizia, interpelatzailea eta kritikoa delako.

Feminismoa denon kontua den heinean denondako liburua egin nahi izan zuen hooksek. Hasi nahi duenarentzat baditu bertuteak: feminismoaren historia baliatzen du gaiak kokatu eta gertatu zena testuinguruan jarriz. Bere bizi-espereantzia oinarritzen du ibilbidea, kontaktzen duen une historikoa bizi izan zuelako. Estiloari dagokionez, zuzena eta argia da, endredorik gabekoa. Baina

feminismoaz asko dakienak ere topatuko du planteamendu berririk eta ikasteko lerrorik. Deserosoa suerta daiteke ez baitu merchandisingaren feminismoak erakusten, hautu politiko sakon baten moduan planteatzen baitu, eta sendo ditugun zutabe batzuk arrakalatu baititzaite.

Gustura irakurrita ere, geldotasuna eskatzen du. Zer hausnartu eta zer pentsatua ematen duelako. Bere erritmoa eta tempoa ematea komeni da irakurraldia gozatu ahal izateko.

Katakrakek argitaratu zuen 2018an: une aproposa izan zen, mugimendu feministaren eztanda garaia zen eta euskal literaturan hainbat lan feminista sortzen eta beste hainbat klasiko itzultzen hasiak ginen. 2021an zendu zen hooks, baina 30 liburu baino gehiago idatzi zituen. Badugu non murgildu. ●



MUSIKA

Gehiago izan gaitezke



XALBA RAMIREZ

Interneten musika entzuten duzune-takoa bazara, ia seguru ezagutzen du-zula Kokoroko. Agian uste duzu ezetz, baina hartu segundo bat eta bilatu *Abusey Junction*. Oscar Jeromeren gitarrariff malenkoniatsua ezaguna egin da Spotify eta YouTube gisako plataformetako algoritmoaren gogokoenen artean egoteagatik. Entzunaren entzunez, akaso, galdu du bere esanahia. Baina kanta eder askoa dela ez uka.

We Out Here bilduman lehenik eta ostean euren *Kokoroko* EP-an agertu zen kanta horri esker, mundu mailan ezaguna egin den Londreseko taldeak bere lehen lan luzea kaleratu berri du lau urte eta gero. *Could We Be More* da afrobeat, highlife eta soul nigeriarrak disko luze batean hartzen duen forma.

Ia erritmoz aldatu gabe, kanta batetik

bestera egiten da salto, bidaia beraren parte sentituz pista guztiak. Bidaia kosmikoa une batzuetan, barnera begirakoa besteetan. Arrazakeriaren kontrako borroka bizi-bizi dago Londresen, eta jazz musikari gazteak horren erakusle dira, besteak beste, kulturartekotasunaz eta sustraiaren aldarria praktikara eramanez.

Dide O eta *Home* abestiek dute lehen aipatutako *Abusey Junction*-en dardara bertsua, edo antzekoena behintzat. Baina badira mugituagoak, *Soul Searching* eta *War Dance*, esaterako, baita single itsura hartu duen *Something is Going On*, Marvin Gayeren galderari erantzunez edo. Taldeko hiru nesken ahotsen koroek dotore janzten dituzte errepikak. Bide batez, beraiek dira taldearen arimak: Sheila Maurice-Grey tronpetan, Cassie Kinoshi saxoan eta Richie Seivwright tronboian.



COULD WE BE MORE KOKOROKO

BROWNSWOODS RECORDINGS,
2022

Those good times-en egiten dute dirdira gehien, agian nostalgikoena eta komertziala den pieza ederrean.

Diskoak badu, agian, zuzentasunerako joera handiegia. Maurice-Greyren tronpetak bestelako freskotasuna eman zion Nubya Garciaren *Lost Kingdoms* kantu zoragarriko solo zoragarriari, adibidez. Itxura du, lau urteren ostean, pentsatuegia dagoela lan hau, eta ezer ez dela zegokion bidetik ateratzen. Afro-jazzak bestela iradoki dezakeen arren.

Edonola ere, bidaia ederra da lan hau. Ez bilatu hemen, beraz, Afrikako doinu pentatonikoekin eta erritmo frenetikoe-kin osatutako lana. Sustraiak barnerantz doazelako bidaia honetan. Guztia neurgarri eta neurgailu den honetan, gehiago izan gaitezkeelako zenbakiz, eta gehiago izan gaitezkeelako bestela ere. ●



Putxito, bota beste bat!

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 ZOE MARTIKORENA

12.000 lagun kontzertu baterako elkar-
tzea ez da erraza. Eta ez da errazagoa jende hori guztia barrura sartzeko antolatzea. Navarra Arenari ez, Sadar futbol zelaiari buelta ematen zion pistarako ilarak, eta harmailetakook ere bueltaka izan gintuzten: orain hemen, orain hor.

Sartu eta aztertzekoa zen egoera. Jendetza. Denetariko fauna. *Cayetano* asko, baina jende ezagun asko ere bai. Denak, edozein kasutan, eszenatoki gaineko hiru pantailei begira, publikoaren zuzeneko irudia ematen zutenak, C Tanganaren biraren izena zekartenak: *Sin cantar ni afinar* (Kantatu eta afinatu gabe).

Hasteko modukoa ematen zuen edozein keinuri txistu egiten zioten zaleek; ordu erdi generaman zain. Azkeneko, teloa igo eta hasi zen *show*-a. Eszenatokia hirutan banaturik, orkestra

bat, banda bat, koroak egiten dizkion hirukoa eta 60ko hamarkadako luxuzko hotel bateko terraza antzeko platoa. Tabernari antzezle bat, bueltaka tragoak eskaintzen musikariei. Pantailan, *Starring: Antón Álvarez as Pucho* letrak, pelikuletako hasieretan egoten diren ohiko kredituak. Estimulu gehiegi, zer begiratu ez nekiela egon nintzen, baina pelikulari begirik kendu ezinik era berean.

Hasierako bi kantuak ez ziren bereziki ezagunak izan eta horregatik, agian, gure inguruko jendea eserita geratu zen. Baina hirugarrenetik aurrera? Kasik ezinezkoa zen geldirik egotea. Jarraian pasa ginen *El Madrileño* diskoan ukitzen dituen estilo eta erritmo ezberdin guztietatik, abesti bakoitzerako performance bana eginez. Bazkalostea, *Tiny desk*-en bezala, lore-koroa hiletan irudikatzen duen abestian, mahaira ese-

CTANGANA

NOIZ: Irailak 3

NON: Navarra Arena (Iruñea)

rita gitarra-jotzailearekin, edo bera bakarririk trap edo elektronikatik gertuago dauden abestietan.

Gutxi hitz egin zuen, eta prestatutako elkarrizketa bat antzestu zuenean ez zitzaion askorik ulertu. *Gabon* bat ere ez. Pamplona gora eta behera, Iruñea esango zuelako esperantza minimoa ez zuen bete. Eta konturatzerako bukatu zen pelikula. *Fin* zioen pantailak. Arraroa izan zen, agur eginez eta banda osoarekin pasilotxotik saltoka zebilen, baina zerbait gehiago egongo zela uste genuen.

Entzunda neukan auzo-lotsa ematen zuela lehen El Madrileñok, Antónek, C Tanganak edo Putxitok. Baina bira honetarako pelikula bat muntatu zuen bere buruan, eta pelikula hori oholtzara eramanez, literalki. Askok hitzak irentsiko zituzten atzokoa eta gero. Hori bai, kontzertu bat ikustera etorri zenak 60 euroko film bat eramanez etxera. ●



Hitz gezidunak

GIZARTEARI DAGOKIONA JAURTIZ	HARRINABAR MODU ATZIZKIA	SISTEMA OPTIKO	IRANTZU PASTOR	UKAPENA ESKUMUTURRA	ERREGELA, NORMA NAFARROAKO HERRIA	GUTXI JATEN DUENA DANBOR ZAPALAK
Ero NEU					PERTSO- NAIAREN IZENA DAUDE	
	ÑO, TORI! METAL ZURIA		AHOLKU NAFARROAKO HERRIA	ARGIBIDEAK IPAR AME- RIKAN BIZI ZEN HERRI		
PERTSO- NAIAREN ABIZENA KIROL ELKARTE					MINTEGI, SABITEGI "... GAUZA BADA, ISIJLIK EDUKI"	
		MUGAZAINA ZEMEN- TUZKO PIEZA HANDIA				AUZITEGI NAZIONALA ERDI MAILA- KOA DENA
BOST PEZETA	DEBEKU, GAITZESPEN PISU NEURRI		KAUSAZKO GRADU MILITARRA			ZAITASUN HANDIZ
				ZALANTZAN IPURTZULO		
RADONAREN SINBOLOA PORTUAK, NASAK		BETEA INFORMAZIO GENETIKOA DUENA			ALDAPA UKATU ADITZAREN INFINITIBOA	
			ELKARTE LARRE ARE GABE			KILOA KONTSONAN- TE BIKOITZA
EREDU JOATERA BEHARTU				LEPONDO, GARONDO ALFABETOKO AZKEN LETRA		
					ITXURA, EITE	

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

3		4	6	9			7	
9	1	2	7		5	6		3
	5				2	1		9
		9		6	3		1	
1			9			3		
5				2	7			
4		3			6			
2		1			9	7	3	
	9					2	6	1

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Gai, gauza.
2. Nabari.
3. Laratzean zintzilik egoten den lapiko.
4. Bitartea.
5. Perretxikoak.

EBAZPENAK

1. KAPAZ
2. AGERI
3. PERTZ
4. ARTEA
5. ZIZAK

3	8	4	6	9	1	5	7	2	
8	9	5	3	7	4	2	2	6	1
2	6	1	5	8	9	7	3	4	
4	7	3	2	1	6	9	5	8	
5	3	8	1	2	7	4	9	6	
1	4	6	9	5	8	3	2	7	
7	2	9	4	6	3	8	1	5	
6	5	7	8	3	2	1	4	9	
9	1	2	7	4	5	6	8	3	
3	8	4	6	9	1	5	7	2	

Z	N	V	A	I	Z	V	R	V	N	V	O	I
E	K	O	K	O	L	O	D	E	O	M		
K		N	U	Z	B	A	K		V	A	I	K
E		I	K	E	A	T	U	A	S	O		R
N		D	U	O	K	E	R	R	E	R		O
		S	A	L								
V		N	A	D								
I		I	S	A	B							
K		U	A	T								
Z		T	O									
I		V	A									
M		A	U									

Júlia Martí Comas

OMAL-EKO IKERTZAILEA



BOTERE KORPORATIBOARI PLANTO

“Urteak daramatzat enpresa transnazionalen inpaktuak aztertzen eta ezagutzera ematen. Tesia argia da: sistematikoki urratzen dituzte giza eskubideak. Enpresa horien jatorrizko herrialdeen eta ondorioak pairatzen dituztenen artean zubiak eraikitzeak beharra premiazkoa da; erresistentziak posible direlako, batez ere, ikuspegi ekofeministatik heltzen bazaio aferari. Ingurumen kalteak ez ezik, emakumeak direlako botere korporatiboaren ondorioak jasaten dituztenak”.

“Euskal enpresa transnazionalen inpaktuen aurrean kontrol gune bat sortu nahi dugu”

Transnazionalen eta giza eskubideen euskal zentroa sortzea proposatu du Euskal Herriak Kapitalari Planto! plataformak. Atxikimenduak bilatzen ari dira lege proposamena izateko bidean. Zentroaren beharraz eta nondik-norakoez luze jardun du Júlia Martí Comasek (Bartzelona, Herrialde Katalanak, 1989), garapen ikasketetan doktore eta Latinoamerikan dauden Multinazionalen Behatokiko (OMAL) ikertzaileak.

 LEIRE REGADAS  HODEI TORRES

Zertaz ari gara enpresa multinazionalen giza eskubideak urratzen dituztela diogunean?

Praktika sistematiko batez ari gara. Era guztietako eskubideen urratzeak ematen dira: zibilak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak, baita emakumeen aurkakoak ere, lan alorretakoak... Inpunitate osoz jarduten dute enpresa horiek beste herrialde batzuetan proiektu erraldoiak ezartzeko orduan. Lurraren defendatzaileen hilketez ari gara, ibaien eta ingurumenaren kutsaduraz, komunitate osoak beraien lurraldeetatik joatera behartzeaz...

Enpresen jarduna kontrolatzeko ez dago inongo tresnarik?

Ez, ez dago inolako mekanismo juridikorik ez enpresa transnazionalen inpaktuak kontrolatzeko ezta zigortzeko ere. Giza eskubideak betearazi ditzaten hainbat saiakera izan dira Europar Batasunaren baitan, baina ez dira kontuan hartu. Katalunian mugarri bat lortu dute; transnazionalen eta giza eskubideen zentroa sortzeko lege proiektua ez-

tabaidatzen hasiko dira aurki Parlamentuan; bide berdina jarraitu nahi dugu guk.

Enpresen inpunitatearen dimentsioa irudikatzeak, beharrezkoa da jakitea estatuak auzitara eraman ditzaketela auzitegi pribatuen bidez.

Asimetria itzela da. Enpresa transnazionalen estatuak auzitara eraman ditzakete eta milioiak ordainarazi, baina ez alderantziz, giza eskubideak urratzeagatik. Ez dago balantza hori orekatzeko modurik. Enpresa handien interesak babesten dituen nazioarteko araubide juridikoa baitago, justizia pribatizatu moduko bat, merkataritza-itunetan oinarrituta.

Zertarako dira orduan Enpresaren Gizarte Erantzukizuna eta berriki sortu den *arreta egokia* kontzeptua?

Inolako kontrolik gabeko borondatezko printzipioak dira, enpresek beraien burua erregulatu dezaten. Enpresen Gizarte Erantzukizuna



"Euskal enpresak desberdinak direla eta giza eskubideak errespetatzen dituztela aditzera eman nahi duguten arren, hori ez da horrela".

transnacionalen aurpegia garbitzeko saiakera bat izan zen 70eko eta 80ko hamarkadetan. Ezertarako balio izan ez duela egiaztatu da honezkerok. Gauza bera gertatzen da orain *arreta egokia* lege-proposamenarekin; jardueren ondorioz azterketa-txostenak izatera baino ez dituelako behartzen. Beti egongo dira txosten horiek onartuko dituzten aholkulari "lagunak". Giza eskubideak be-tearaztea exijitu behar zaie, ez beraien borondatez egitea.

Zein izango litzateke orduan enpresa transnacionalen eta giza eskubideen euskal zentroaren zeregina?

Euskal enpresa transnacionalen inpaktuen aurrean kontrol gune bat sortu nahi dugu. Ikuskaritzarako organismo publiko independentea eratzea da proposamena. Nortasun juridiko propioa izango luke, salaketak jasotzeko eta aztertzeko. Eginkizunen artean egongo liriateke kontuak eskatzea, ikuskapen publikoak egitea eta giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia betetzen ez duten enpresentzat zigorrak proposa-

tzea. Besteak beste, administrazio publikoek enpresa horiek ez kontratatzea edo bertan ez inbertitzea ahalbidetu dezake zentroak. Beste ate batzuk zabalduko lituzke, gainera; sektoreen publikazioa edo munizipalizazioa, ekonomia solidarioa babesteko politikak...

Bien bitartean, geroz eta aurrekontu handiagoak bideratzen dira euskal enpresak nazioartekotzeko.

Euskal enpresak desberdinak direla eta giza eskubideak errespetatzen dituztela aditzera eman nahi duguten arren, hori ez da horrela. Iberdrola, CAF, Petronor, Gestamp... zerrenda luzea egin dezakegu horien inpaktuei buruz Mexiko, Peru, Palestina... bezalako herrialdeetan. Horietako asko euskal fiskalitateaz baliatzen dira. Beste batzuetan, Eusko Jaurlaritza akzioduna da. Administrazio publikoak kontratatzen ditu gehienak. Ongizatearen ginetik lehenesten ari dira enpresa handien irabaziak, eta alfonbra gorria jartzen zaie nazioartera joan daitezen, giza eskubideak kontuan hartu gabe.

Atzerriko multinazionalak gurean ere sortzen dituzte ondorioak...

Txanponaren beste alde bat da hori. Amazon bezalako ekonomia digitaleko erraldoiak ari dira gurera etortzen, gure espazioa eta industria- eta merkataritza-sektorea bereganatuz, besteak beste, lan eskubideak urratzen dituzten bitartean. EH Kapitalari Planto!-k proposatzen duen zentro honek alde biko zeregina izango luke, eta ondorio hauen aurrean ere erantzunak emateko gai izatea da helburua.

Zein punturainoko eragina izan dezake zentroak?

Partxe konkretu bat baino ez da. Baina, era berean, bada modu bat adierazteko nahikoa dela eta neurri zehatzak hartzeko ordua dela, dagoeneko ez dugula onartzen euskal administrazioen jarrerera. Giza eskubideen defendatzaileak babesteko programak martxan dituzte, nazioarteko lankidetzaz sendoa... baina horrek guztiak ez du ezertarako balio prebentzioa lantzen ez bada. Jardueren kontrola posiblea da, borondate politikoa baldin badago. ●

Coronation chicken

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Internet leku zoragarria da: segundo pare bat aski duzu momentu historikoarekin bat egiten duen sukaldeko errezeta aurkitzeko. Ingalaterrako erregina hil zela jakin nuen, berehala pentsatu nuen oilasko-plater batean –bai, ni ere rolo honekin, baina *frivolité* pixka bat eta gero gauza totxoak datoz, pazientzia–.

Zuek ez dakit, baina ni prest nago Charles III.aren buru gainean koroa jartzzen duten egunerako: jainko protestanteak gorde beza *coronation chicken*-a, zeina plater perfektua baita mundu guztiak zeremonia karka bat ikusteagatik telebistari pegatuta egon nahi duen egunetan prestatzeko; horretarako pentsatu zuten, izan ere, 1953an, hain zuzen orain sator artera joan den Elizabeth Alexandra Mary Windsor koroatu zuten egunean milaka britainiarrek ez zezaten begirada segundo batez ere kendu erregina berriaren tronuratzetik, beti gatz punttu bat faltatzen zaion lapiko horri kasu egiteko.

Coronation chicken on bat prestatzeko aski duzu oilasko bularki bat bitan banatzea eta egostea, gero eskuekin zerrendatan zatitzea eta saltsa bat eranstea, honela egiten dena: moztu tipula bat puska txikitan eta sueztitu olioarekin, gero bota currya, bi minutuz dena nahastu, eta ondoren gehitu tomate-saltsa, ardo zuri pixka bat, ura eta ereintz hosto bat. Nahasketa irakiten hasten denean erantsi azukre pittin bat, limoi-xerrak eta limoi-zukua, eta mertxika siku batzuk xehe-xehe egin da. Hamar minutuz-edo su txikian utzi, gero oilasko zatiekin nahastu eta laga hozten. *Delightful* geratzen da, merkea da eta erraz prestatzeko modukoa: Jeremy Benthamen ideia utilitaristak plater bihurtuta.



Nik hor uzten dizuet errezeta, ko-roazio-zeremoniaz paso egingo baduzue ere agian balio dizue, nik zer dakit, larunbat gau batez ETB1en maritxiak ikusi bitartean dastatzeko.

Internet ez da, ordea, hain gauza zapoetsuak aurkitzeko lekua bakarrik. Ingalaterrako erregina hil zela jakin eta berehala –orain bai, bagoaz gauzaren mamira, baina masailak beterik, diferentzia ederrean–, ezkerreko jendearen artean bideo argentinarr bat biralizatu den lekua ere bada. Tebilbaoko saio batekoa dirudi eta programaren aurkezleak txalo bero bat eskatzen du Satanasentzat; eta xanpain botila bat ere irekitzen du “zabor britainiar hori, Luziferren zinkeria hori, zabor masoi hori” lurretik desagertu dela ospatzeko. Tendentzia guztietako jende aurrerakoiek, antza, ez dute ezer arrarorik sumatu horrelako hitzak entzutean –pistak argi samarrak ziren, ez esan ezetz–, eta are gehiago, badirudi grazia ere

egin diela, ingurukoek ikus dezaten zabaldu baitute.

Gero, askoz gutxiago zabaldu den txioren batean esplikatu digute nor den Santiago Cúneo, bideoa kontakatilu argentinarra. Maputxeen kontra astakeriak esaten agertzen den beste irudi batzuk zeozer zabaldu dira eta Wikipediara jo dut: antiabortista, katoliko sutua, juduei buruzko konspirazio-teoria zabaldu zalea. Bideo birala baino bi egun lehenagoko saio batean esan du nazi batek ia hil duen Cristina Fernándezen aurkako atentatuaren lehen erantzulea politikaria bera dela. Bref: ultraeskuindar bat, behatzetatik hasi eta soildu samar daukan bururaino.

Ez dago garuna asko estutu beharrik ulertzeko nola iritsi den horrelako material erradioaktiboa zirkulu erradiguetara. Inkontinentzia digitalaren garaia *coronation chicken* bat da: ezkerre oilaskoa da, saltsa eske; eta badirudi eskuinak espezia hobeak dauzkala azkenaldian. ●

ARGIA EGUTEGIA 2023

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.



+ 5€
bidalketa gastuak.

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

10€

BIZUM bidez ere
ordaindu daiteke.



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45

Ekologikoa, dena hobetzeko!

ekolurra.eus   

Babesleak:



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi